

Galtzaund

ESKUALDEA: Patxi Caminos abaltzisketarra abuztuaren 8ari begira » Belate auzoan aparkalekuekin kezkatuta **KULTURA:** Zenbat irakurtzen da euskaraz? **KIROL SALTSA:** Itsaso Leunda txirindulariarekin solasean



ELKARRIZKETA: Garbiñe Ubeda, Mila Ezker liburuaren egilea



*Ertamerikan
eta Hego Amerikan
barrena*

Aitzol
Udal
Euskaltegia

MARBUJA

AURREZ AURREKO TALDEAK
MAILA GUZTIAK
AUTOIKASKUNTZA
TITULU HOMOLOGATUAK

irailaren 18 arte
bulego ordutegia
09:00 - 13:00 / 16:00 - 19:00



Rondilla 34-B, 3.a
20400 TOLOSA

tel. **943651006 - 943652343**

www.udaleuskaltegiak.net

aitzolue@tolosakoudala.net



Argitaratzailea: Galtzaundi Euskara Taldea.

Helbidea: Nafarroa etorbidea,
6-behea.
20400 Tolosa (Gipuzkoa)

Telefonoa: 943 655 004

Faxa: 943 654 983

e-posta: galtzaundi@galtzaundi.com

Webgunea: www.galtzaundi.com

Koordinazioa: Leire Zubeldia.

Erredakzio taldea: Igotz Alkorta, Felix Aiestaran,
Amaia Goikoetxea Azpeitia.

Kolaboratzaileak: Maialen Zubeldia, Amaia Sagasti, Alexander Padilla, Joseba Antxustegietxarte, Jon Ander Ubeda, Txomin Garmendia, Garbiñe Biurrun, J. Agustin Arrieta, Begoña Aristi, Antton Izagirre, Ibon Artola, Iñigo Jimenez, Tolosa Bit, Unai Igartua, Virginia Etxarri, Jone Otxoa-Aizpurua, Artubi elkarte, Amaia Goikoetxea Orbegozoa.

Publizitatea: Angela Alamo.

Banatzaileak: Oihana Sanchez,
Juankar Arregi.

Idazkaria: Edurne Mendia.

Maketazioa: Zigor Agirrezabala

Diseinua: Jon Ander Ubeda eta
Maddi Truxuelo.

Azala: Galtzaundi

Inprimategia: Antza.

Tirada: 5.000 ale.

Lege gordailua: SS-906/91.

Frankeo Itundua: 37/94.

GALTZAUNDI aldizkaria doan banatzen da Tolosaldeko 23 herri hauetako denda eta tabernetan: Abaltzisketa, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketza, Anoeta, Beldarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Gaztelu, Hermialde, Ibarra, Ikaztegieta, Inura, Leaburu, Lizertza, Orendain, Orea, Tolosa.

Galtzaundik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta initzen erantzukizunik.



zerbitzua eta lana
euskaraz



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiren laguntza jaso du

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren, Gipuzkoako Foru Aldundiako Kultura eta Euskara Sailaren, Kutxa Fundazioaren, Tolosako Udalararen eta Tolosaldeko hainbat Udalen laguntza jaso du.

IRITZIAREN LEIHOA

- Andoni Egia: Malaletxea
- Eider Elduaian: Jaieten ere eraso sexistarik ez!

NORMALIZAZIO ATALA

- Merkataritza kanpaina martxan UEMAko eskualdeko herrietan

ESKUALDEKO ALBISTEAK

- Patxi Caminos, abuztuaren 8an Txindoki hamabi aldiz igo nahi duen makrobiotikoa
- Belate auzoko bizilagunak aparkamlekuakin kezkatuta

4-5. orrialdeak

6. orrialdea

14-16 orrialdeak

Galtzaundi 306

2009ko uztailearen 17a

Iritziaren leihoa:	
Andoni Egia eta Eider Elduaian	4-5
Eskualdeko albisteak:	
Patxi Caminos abaltzisketarrari elkarriketa	14-15
Belateko bizilagunak aparkamlekuakin kezkatuta	16
Kultura	
Zenbat irakurtzen da euskaraz?	20-21
Kirol saltsa:	
Itsaso Leunda txirrindulariarekin solasean	22-23



ERREPORTAIA: ERTAMERIKA ETA HEGO AMERIKAN BARRENA

7-13 orrialdeak



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundutako argitalpena

- Garbiñe Ubeda, Mila Ezker liburuaren egilea

17-19. orrialdea



MALALETXEA

ANDONI EGIA

EHNE sindikatuko Tolosaldeko arduraduna

Aupa jende, zemuz gabiltze? Seguru denak e aldan bezela bizitzako geo ta pixugua den gurdi honi tiaka ezta? Ba bai, halaxe omen da hau, eo onartzen deu daona eo bestela sobran gaude! Halaxe gertatzen zaigu baserrin gabiltzanoi ere, bai haragi, esne, barazki, ardi... Denak gabiltzela komeri izugarrikin, ni neonek esnea ekoizten det eta ne iritzie kontauko dizuet.

Egie esan nundik hasire ezta errexa, pixkat igual azkenengo urteetan izandako bilakaera kontau behar. Urte hautan, ustet bizitzako beste gauza askotan bezela kriston ziri-sartze baten aurren gaudela. Hemengo esne-ekoizlei alde guztitatiek bultzatu zaie behi gehio jartzea, inbertsio ikaragarriak egitea, azken fiñen esne litro gehiago ekoiztea; eta dena zen ona, dena zen positiboa. Momentu haitan baserritarrek hazi egin behar zuten etorkizun oparo eta duina izateko, esnea kalensaltzeai utzi eta zentralera eramane dena, gazta egiten bazenuen alde guztietatik pegak eta sanidade delakok bere gustokoa duen registro delakoa ateratzera be-

hartu. Beti ere kontrol itogarri eta papeleo jasangaitz batekin, hazten eztena edo kontu guzti hori aurrera eramane ez zuena atzean eta zaharkittuta geldituko zen eta bere egunak kontautau izango zittuen esne mundu honetan.

Ta esandako guztiek ez du esan nahi ni inbertsiok egiteko kontrarioa naizenik, ezta gutxio ere. Dudik gabe egin behar direla betire lana errezteko modua bilatzen badezu eta bizitzeko egokitasun bat. Baiño ez kasu askotan gertatzen dan bezela, lehen 30 behikin bizie atezten ta oain kriston millonadak gastatu ta 100 burutiek gora erabat estresatuta eta iñoa itxi ezinik egotea, hoi inbertsioa baiño gehio suizidioa izan leike. Ez da iñolaz ere onargarrie industriak manejatzen duenaren %30 izatea hemengo esnea eta gainontzekoa kasa diosetik ekarrie, bertakoi kriston kalidadea eskatu (ta hori lana da) eta gero kostatu dena baiño gutxiago ordaintzea. Azkenengo urte edo inguruan litro esnea 25 pta jaitxi digute, momentu honetan 46 pta kobratzen degu prezio basea, gero kalidadearen arabera gehio eta

gutxio izango dena, zuei erosleoi bakoitzak jakingo dezue zenbat ordaintzen dezuen udesne hori, kontue da azkenen goitik betek eguneroko esne "entera" hoi guri ordaintzen diguten baiño 3 aldiz gehiago ordaintzen dezutela. Ba hoixe geo ta gehio behar dutela eta martxa hontan gurekin bukatuko dutela, eta mobilizazioetan hasten bagara, badakite baserritarrek gutxi eta eoskorrek garela ta nik iruipena dauket elkarren kontra jarriko gaituztela (hobe ala ez ba).

Ta pixkat pentsatzen jarrita ta ni aurrena naizela, zertako eo ze nezesidadekin in ditteun holako zor burugabeko eta insegurok, zeatik pentsatzen gendun eunen 500 litro ekoiztu beharren 2000 litro ekoiztuta hobeto biziko giñela... ya ya.

Gure esne zentral lapur honek dirue xahutzetik aparte ez du ezer egin. Hemengo baserritarren egorearen erantzule nagusie da, estatuko gañerako esne zentralekin akordioak egiten dituzte, guk txarreanean jarrita ere asmatuko ez ditteunak eta esne prezioen gora -berak zehaztu. Ezteu imajinature in nahi, horko goikar-

gu, jauntxo pijo, jerente, jerente idazkariek gehi ezta zenbat kargudunentzat zenbat litro esne atera behar ditteu, edo bestela esanda, hointzako bakarrik zenbat behi jaitzi behar dien. Egun hauetan batek esan didan bezela, *alper-alperrik haizeate Andoni; Manifa gehi kontzentrazio, industriak gero eta gehiago behar dik eta zuentzako gero eta gutxio izango dik, eta zuek ez bazaudete kanpoko esnearekin funtzionatuko dik iñungo erreparotiek gabe.* Ta halaxe da! gutaz behar duen bakarra bere anuntzioetan azaltzeko "bertako" etiketa da, hortik aurrera batez!

Histori hau aittutakon emateu lehen aurreratu giñenak obarioetatik helduta gaudela, zorrak ordaindu ezifiek eta histori guztiai aurre egin beharrean!

Benetan ustet garaia deula hemengo esnei etorkizun duin bat bilatzekoa eta ekoizlei eta erosleei ziurtasun eta lasaitasun bat ematekoa! Ala jende segi gurdi horri tiaka baiño gehiegi kargatu gabe bestela Fernandon astoa bezela, mas karga mas karga hartutako lekun deskarga!

Benga adios!!

kutxa

SANTA LUZIA GARAJEA

Grua zerbitzua 24 orduetan



943 653 491 943 653 874
943 653 985 943 806 020
Santa Luzia, 1 TOLOSA



JAIETAN ERE ERASO SEXISTARIK EZ!

EIDER ELDUAIEN

Euskal Herriko Bilgune Feminista

Jaiak lehertu dira gure herrian, batean zein bestean topa daiteke festa giroa asteburu batean eta hurrengoan. Tamalez ordea, festak ez dira emakumeon diskriminazioan salbuespen. Ikusi besterik ez dago pasa berri diren Irungo San Martzialetan gai honek oraindik ere, hainbeste urteren ondoren, zer nolako gatazka eta zatiketak eragiten dituen, emakume eta gizonen alardean modu berean parte har dezatela aldarrikatzeagatik. Edota Tolosako San Juanetan bertan emakume batek pairatu zuen eraso, emakume izate hutsagatik. Badira ordea, askorentzat oharkabean igarotzen diren emakumeon aurkako eraso anitz. Eta horietako asko emakumeon irudiarikin lotuta doaz.

Aurreko asteburuan pasa zitzaidan Bizkaiko herri batean. Gaztez beteriko taberna batera sartu, giro polita, denak dantzan, alai...hormari erreparatu eta bapatean harridura; soilik tanga txiki batek esaltzen zuen emakume ipurdi erraldoi bat hormaren alde batean, bestean

berriz, titi pare ikaragarriak zituen beste emakume biluzi baten irudia. Eta ni hantxe erdian, haragi artean. Burura etorri zitzaidan lehen galdera zera izan zen: ni taberna honetara sartu naizenean bertako jendeak niregan soilik zer ikusi ditu ipurdi bat eta bi titi? Hasiera batean txiki eta haragi huts sentitu nintzen ipurdi eta bular erraldoi horien artean. Gero ordea, burua lanean hasi zen eta pixkana barrua sutzen. Lagun artean komentatu eta batzuk nirekin erabat ados agertu ziren, beste batzuk ez zuten ezezkorik esaten baina exajeratzen ari ote nintzen tankera sumatu nien aurpegikeran. Tamalez, lehen bistadizoan ez gaitu harritzen horrelako irudi batek, ohituak gaude nolabait emakume biluziak, haragi gordinak, objektu sexualak ikustera. Plazer hutsera bideratutako emakumearen irudia soilik ikustera.

Ni erasotua sentitu nintzen emakume bezala eta tabernariari azaldu nion. Hau ordea mutu geratu zen, ez zen ezer esateko gai izan. Ni txiki hasiera batean bere haragi festan

eta gero bera mutu. Nire ondoren beste lagun batek azaldu zion sentimendu bera, eta orduan zegokion ardura bere bizkargainetik kentzen saiatu zen, bera jabearen semea zela esanez. Hantxe geratu ziren ipurdi eta titiak eta gu beste nonbaitera joan ginen. Ardurak ere ordea, hantxe geratu ziren. Balio beza gau hartakoak hausnarketarako eta norberak "berdintasunerako" bidean pausoak eman ditzan. Guztion esku baitago hainbeste entzuten dugun "berdintasun" kontzeptua edukiz betetzea, norberak bere lekutik.

Jai eremuan biderkatu egiten dira emakumeon kontrako erasoak, zoritxarrez. Askatasunez ibili nahi dugu herriko taberna, txozna eta kalean baina zoritxarrez, ezezkoak onartu nahi ez dituztenekin, objektu sexualtzat hartzen gaituztenekin eta kasurik larrienen borrotzatzen gaituztenekin topo egin behar izaten dugu. Honela, askatasunez bizi garenok gu izan beharrean, erasotzaileak dira gure erabakien aurrean inpunitatez eta indarrez

“Autodefentsa feminista aldarrikatzen dugu jarrera eta jokabide bezala. Emakumeen elkartasunetik abiatuz eta herritar guztien erantzunkizunarekin”.

jokatzen dutenak. Emakumeok ordea, ez ditugu eraso hauek onartu nahi, badugu barruan aski indar nahi ez dugunean ez esateko, ukituren bat gus-tuko ez badugu argi erantzuteko, erasotzen ari diren gure laguna babesteko eta gurea dena defendatzeko. Autodefentsa feminista aldarrikatzen dugu jarrera eta jokabide bezala. Emakumeen elkartasunetik abiatuz eta herritar guztien erantzunkizunarekin, erasotzaileak eta euren konplizeak ez ditugu jai guneetan onartuko.

Ez, ez da. Zer edo zer egin nahi baduzu saiatu baina badakizu, eskatu, entzun, errespetatu. Eta zortea baduzu, goxatu! Gora ligotea sana! ■

J. San Sebastian MARISKO ETA ARRAINAK



Foruen etorbidea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 653 528 / 943 682 141



Argi lanak, antenak
eta portero automatikoak

Apaiz-Erreka, 5 • 20400 IBARRA
Tel.: 943 675 878 • Faxa: 943 674 181
Mobila: 639 72 42 60



Ordenagailuak eta konponketak
Enpresa eta partikularrentzako
Mantenimenduak

Oria kalea, 14-behea -TOLOSA - Tel.: 943 676 156 - Faxa: 943 016 857
tolosabit@facilnet.net - www.tolosabit.es

Merkataritza kanpaina martxan

ALEGIA, LEABURU-TXARAMA, IKAZTEGIETA, IRURA, ANOETA, ADUNA, ALTZO... EGIN DA KANPAINA

Erredakzio Batzardea

2005eko uztailetik, Kontseilua, Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea eta Galtzaundi Euskara Elkartea elkarlanean dabilta. Elkarlana abian jarri denetik, hiru erakundeek eskaintza bateratua egin dute merkataritza arloan, eta, horri esker, aurretik zegoen deskordinazioa gainditu dute.

Kanpaina lantzeko, establezimenduz establezimendu ibili dira bi lagun, UEMAko teknikaria bata eta Galtzaundiko langilea bestea. Edozein arrazoi dela medio, bisitarik egiterik ez badago (oporetan daudelako, adibidez), eskaintzaren berri emateko, gutuna utzi diete establezimenduetako arduradunei. Bisitetan hartutako datuak, besteak beste, hauek dira: langile euskaldunak zenbat diren, erroterluak euskaraz dituzten, euskaraz lan egiteko dituzten arazoak...

Behin egoera aztertuta, merkatariek egindako eskaerak jaso eta UEMA arduratu da materiala prestatu eta establezimenduetara eramateaz. Honezkero material guztia establezimenduetan dago. Eskaeretako materiala mota askotakoa da: hiztegiak, faktura takoak, ordutegiaren berri emateko karteltxoak,

Dagoeneko martxan da eskualdeko UEMAko herrietako merkataritza kanpaina. Eskualdean zazpi herrietako establezimenduek jaso dituzte bisitak: Leaburu-Txarama, Ikaztegieta, Irura, Anoeta, Alegia, Aduna eta Altzo. UEMAko Tolosaldeko beste herrietan berriz, irailean gauzatuko da merkataritza kanpaina.



eskaintza berezietarako erroterlu txikiak... Guztia doan da, eta merkataria nahiz ostalariek begi onez ikusi ohi dute eskaintza.

Kanpainaren helburua euskararen normalizazioaren aldeko konpromisoak lotzea da; beti ere, Bai Euskarari Ziurtagiriaren baitan. Izan ere, Bai Euskarari Ziurtagiriaren inguruko informazioa ere merkataria guztiei eskaini diete, konpromisoetan areago iritsi nahi dutenentzat bereziki.


Gainera, kanpaina orokorraz aparte, lanketa berezia egin da eskualdeko harategiekin, hornitzaileekin dituzten harremanak euskalduntzeko. Harakinen jarra oso ona izan da, eta horrek esparru horretan aurrerapenak lortzeko aukera handiak eman-gotu ditu.

UEMAko herrietako merkataritza kanpaina bi epealditan egingo da: uztailean eta irailean. Hartara, herri batzuetan irailean egingo dira establezimenduz establezimenduko bisitak. Nolanahi ere, bisiten zain egon gabe, urte osoan egin daitezke eskaerak. Horretarako, herriko udaletxera edo UEMAko telefonoetara jo behar da (943260372). Material guztia doan izango da, bai bisitetan eskatutakoa, bai bestela eskatutakoa. ■

ALDATZ
Kristaldegia

Mota guztiako beirak
Bainu eta dekoraziorako
ispilua
Beirate artistikoak
Dubxa-itxiturak

Tel./Faxa: 943 674 845
kristaldatz@euskalnet.net
Pablo Gorosabel, 33 • TOLOSA



BENTA
ALDEA

JATETXEA

Tel.: 943 654 079
ANOETA-TOLOSA BIDEAN

ELUSTONDO
ELEKTRIZITATEA

Argi lanak
Iluminazioa
Antenak

Turre, 4 (Mustad) 943 672 300
Amaroz, 21. 943 675 513
20400 TOLOSA



Argazkia: Agurtzane Belauntzaran

Galtzaundirekin Munduan barrena II

ERTAMERIKA ETA HEGO AMERIKAN BARNA ERAMAN GAITUZTE HURRENGO ERREPORTAIETAKO BIDAIARIEK

Leire Zubeldia

Bolivia izango da Galtzaundik proposatzen dizkizun bi bidaien elkargunea edo helmuga. Herrialde hau Hego Amerikaren bihotzean dago, eta bertatik mugituko gara iparraldera zein hegoaldera eginez.

Amaia Igartuak (Ibarra) ez du aisa ahaztuko 2007. urtean egin zuen bidaiak. Irakasle ikasketak amaitu ondoren, Nikaraguan egin zituen praktikak Sandinistek martxan jarri zuten alfabetizazio kanpaina ba-

Bi norabidetan bidaiatuko dugu. Lehenik, Amaia Igartua ibartarra gidari dugula, iparraldetik hegoaldera egingo dugu: Nikaraguan hasi eta Costa Rica eta Panama zeharkatu ostean, Hego Amerikan barneratuko gara; Kolonbian hain zuzen ere. Hegoaldera jarraituz, Ecuador eta Peru ezagutuko ditugu Boliviako hiriburuan, La Paz-en amaitzeko. Agurtzane Belauntzaran berrobotarrak, Hegoaldetik Iparraldera eramango gaitu: Argentinan hasi, Uruguayain geldialditxo egin eta Bolivian geratuko gara.

tean parte hartuz. Hiru hilabetez bertako egoera barnetik ezagutu ondoren hasi zuen Boliviara arte eramango zuen bidaiak. Costa Rica, Panama, Kolonbia, Ecuador eta Peru ezagutu zituen lehenik.

Agurtzane Belauntzaranek (Berrobi) aldiz, kontrako noranzkoan ezagutu zuen Hego Amerika. Argentinako Cordoba probintzian bizi diren senitartekoak bisitatzeko aitzakian egin zituen mailetak. Argenti-

nako leku ezagunak eta ez hain ezagunak ikusi, bizilaguna den Uruguayen egon eta Bolivian amaitu zuen bidaiak.

Bi norabide ezberdin dira, baina bide bera. Amaia eta Agurtzane, zirkuitu turistikoetatik kanpo geratzen diren lekuak, herriak ezagutu dituzte. Tokian tokiko jendearekin nahastu, harremanak egin, eta bertakoen maila berean jarriz bidaiatzen dute. Ertamerika eta Hego Amerika ezagutzeko bidaiak ez zik, bidaiatzeko modu bat ere proposatzen zaizu hurrengo bi kroniketan.

(Hurrengo orrian jarraitzen du)



Argazkiak: Agurtzane Belauntzaran

Pachamamaren seme-alabak

AGURTZANE BELAUNTZARAN ETORRI BERRIA DA ARGENTINA, URUGUAY, BOLIVIA ETA PERUN ZEHAR EGINDAKO BIDAIATIK

Duela urte batzuk Mexiko, Kuba eta Brasil ezagutu zituen Agurtzane Belauntzaranek. Bidaia hartan Latino Amerikaz maitemindu zen, eta berriro itzultzeko aukerari ez dio muzin egin. “Argentinako Cordoba probintzian senitartekoak ditugu. Haiek bisitatzeko aitzakiarekin joan nintzen iazko azaroan”. Ekaina amaieran itzuli da etxera.

Senitartekoak gida lanetan zituela, Cordoba probintzia ezagutu zuen lehenik. “Jendea Argentinara joaten denean ez da inguru hauetan geratzen. Leku politak ditu, mendizaleak direnentzako batez ere: Sierra de Cordoba mendika-

Hain ezagunak diren toki turistikoak bisitatzearaino, oraindik turistak iritsi ez diren leku “magikoak” ere deskubritu ditu bere bidaiari Agurtzane Belauntzaran berrobitarrak. Hegoaldetik Iparraldera, Argentina, Uruguay, Bolivia eta Peru zeharkatu ditu, autobusez eta tarterka autostop-a eginaz. Beti, bertakoeekin eta bertakoentzat.

tea dago, eta ibai zabal-zabalak ditu”. Probintzia honetan dago gainera, Che Guevara bizi eta hazi zen herria. Argentinan egindako egonaldian, Patagonian eman zuen denborarik gehien. Chalten herrian egon zen bi hilabetez. “Trekking-aren hiriburu nazionala da Chalten. Mendi eta horma apartak daude; eskalatzailerak asko joaten da hara”, dio Agurtzane. Tarteetan euskaldunak ez dira falta. Herri-

honetatik gertu dagoen Fitz Roy pareta eskalatu zuten Pou anaiek. “Chalten herritik hiru orduko ibilaldia eginez, Fitz Roy eta Torre glaziarretara iristen zara. Patagonian oso ezaguna da Calafaten dagoen Perito Moreno glaziarra. Autobus beteak joaten dira bertara eta 200 turistekin batera ikusten duzu glaziarra. Nik nahiago dut zure kasa, glaziarraz eta inguruko paisiaiz barkadetan gozatzea; aukera

hori ematen du Chalten-ek”.

Aipatutako herritik Ushuaiara joan zen. Eguraldi onak lagunduta, La Pataya parke nazionalan ibilaldi bat egin zuten. “Leku hau izugarria da. Hondartza urdinak daude, eta atzean, Chileko mendi elurtuak ikusten dira. Arroketan berriz, itsas-otso mordoak dago”. Inguru hauetan, Patagoniako indigenak, Yamana-k bizi ziren. Parke nazional honetan, hauen etxeren arrastoak ikus daitezke. Geratzen den azken Yamana ezagutzeko aukera ere izan zuen Agurtzane. “Cristina Calderon du izena. Ushuaian, baina Chileko aldean bizi da. Ohore bat izen zen niretzat”.

Nola ez, Argentinako hiri-

buruan ere egonalditxo bat egin zuen. “Buenos Aires oso polita da. Erdigune ederra du, eta San Telmo zein Palermo auzoak ere ederrak dira”. Baina ez zuen espero hiriaren aldirietan horrenbeste miseria topatzerik. “Aldiriak *villaz* edo fadelaz beterik daude. Miseria, drogak, prostituzioa... arazo handiak dituzte. Haurrak ez dira eskolara joaten. Ikustezinak dira gizartearentzat”.

JUJUY, PACHAMAMA ORATUZ

Buenos Aires-en ezkutuko aldeak harritu bazuen, Argentina Iparraldean kokatzen den Jujuy probintziak aho zabalik utzi zuen berrobitarra. “Badi-rudi argentinar guztiak zuriak direla, baina ez; indigenak ere badaude, eta Jujuy probintzian bizi dira”. Inguru haue-taraino iritsi zen kultura Inka. Oraindik ere euren arbasoen fisionomia, lurra lantzeko era, (terrazen sistema) musika eta janzkera mantentzen dituzte. Pachamamarekin, hots, amalurrarekin duten lotura egin zitzaion harrigarriena berrobitarrari. “Amalurra arretatsu zaintzen dute, ritualak egiten dizkiote... Dena egiten dute amalurrarengatik. Izan ere, amalurrak ematen diete jaten”. Pachamamara lotzen dituen zilborrestea zenbateraino estua den frogatzeko anekdota bat kontatu digu: “Behin 4.000 metrora dagoen mendi batera igo nintzen bertako batekin. *Ikusten dituzu pedal guzti horiek?* galdetu zidan tontorrean zeuden bizikleta pedal mordoak hatzarekin seinalatuz, ba Pachamamari egiten diogun ofrenda bat da berriro mendi hau bizikletaz igotzeko indarra eman diezagun. Izan ere, mendi hura bizikletaz igotzen dute, bailararen beste aldean landu daitezkeen lurak aurkitzeko”. Koka hostoak, tabakoa... Denetik eskaintzen diote Pachamamari.

URUGUAY, HERRIALDE EZEZAGUNA

La Plata Ibaia zeharkatuta iritsi zen bidaiaria hurrengo helmugara: Uruguay. Carmelo herrian lehorreratu zen. Hemendik iparralderuntz abiatu zen itsasertzari jarraituz Brasilgo mugaraino iritsi arte. “Uruguay oso herrialde ezezaguna da. Ez dakit zergatik, zeren hondartza paregabeak ditu, oso egokiak surf-aregiteko eta bainu bat hartzeko”. Euskal Herriaren antza hartu zion Agurtzanek; lurralde menditsua baita, eta tontor-rrak kostaldetik oso gertu baitaude.

Inon paradisurik bada, Uruguyen dago hori; Cabo Polonion hain justu. Paradisu horretara iristeko 4 x 4 autoa behar da, beste erarik ez baitago bidean dauden hareazko duna erraldoiak zeharkatzeko. “Duna artean aurrera zoazela, han urrunean etxetxo batzuk ikusten hasten zara. Gerturatzen joan ahala, konturatzen zara herrixka bat dagoela”. Cabo Polonio herria itsas-otsoak harrapatzen zituzten arrantzaleek hartu zuten, eta bertan bizi izan dira gaur arte. “Harrigarriena da, ez dagoela ez ur edangarririk ezta argi indarrik ere. Arratsaldeko seietan eguzkia sartzen zenean, kandlekin ibiltzen ginen. Jendea jendearekin egoten zen, komunikazio bizia zegoen, eta hori izugarri gustatu zitzaidan”. Legerik gabeko herria ei da, bi hitzetan, “toki magikoa”.

BOLIVIA, HEGO AMERIKAREN BIHOTZEAN

Hego Amerika pobrea bada, Bolivia da bertako herrialderik txiroena. “Argentinako aduana baino 3 kilometro lehenago barrkada batekin egin genuen topo. Autobusetik jaitsi, motxila hartu eta oinez egin nuen

mugara arteko bidea. Hau zeharkatzea nahikoa izan zen txirotasun horretaz jabetzeko: Boliviako aduanan, idaz makina zahar bat besterik ez zeukaten”. Hamar metrotan, mundua aldatu zitzaion Agurtzaneri. “Ongi etorri Boliviara”, esan zion bere buruari.

Bi Bolivia bereizten ditu berrobitarrak. Bat, Bolivia txuria; batez ere Santa Cruz eta Sucre herrietan nabarmentzen da. Gehienak autonomistak dira. Beste aurpegia indigenena da. Populazio osoaren %80a osatzen dute. “500 urte pasa dituzte Espainolek zapalduta. Orain gustura daude, Evo Morales presidentea indigenen eskubideen alde borrokatzen ari baita”. Konstituzioan indigenen eskubideak aitortzen dira egun, eta horrek krispazioa sortu du bertakoen eta txuriaren artean. “Sucren esa-

ten dute, indigenek beraiek baino eskubide gehiago dituztela. Baina hori ez da horrela; orain, indigenek txuriaren eskubide berak dituzte”.

Bolivia lurralde ederra da oso, baina Agurtzaneren hitzetan, autobusean 50 boliviarrarekin batera joatean ikusten duzun paisaia baino ederragorik ez dago. “Ez duzu leihotik begiratu beharrik”.

Behin hara joanda ordea, Titi-Kaka lakua bisitatzeak merezi du Belauntzararen ustez. “Hau, eta Isla del sol”, gaineratu du gero. “Isla del Sol 3.800 metrotara dagoen paradisua da. Harea zurizko hondartzak ditu iparraldean, ur garbi eta hotzarekin. Bertako biztanleak berriz, astero biltzen dira komunitatean dauden arazoak kontatu eta aztertzeko. Astelehenak azolanerako izaten dira. Baina ez daukate masadorerik, ezta karretilarik ere. Kolkoan ga-





Patagonian Chalten herritik abiatuta egindako ibilbidearen saria. Fitz Roy eta Cerro Torre mendiak.



rraiatzen dituzte gauzak”. Beste bizitzeko filosofia bat bat atzeman zuen Agurtzanekek herritar hauengan. “Beraiek ez dute ulertzen lurra saltzearen ideiaia. Lurra lantzen duenarena da, Pachamama ez da diruarekin erosten”. Aipatutako lekuez gain, Potosi mendia eta Yunga eskualdea azpimarratu ditu.

Bere bidaiaren kronika La Paz hiriburua aipatuz amaitu du Belauntzaranekek. Denboralditxo bat eman zuen bertan, kalean lana egiten duten hurrei laguntzen dien erakunde batean. “Boliviako konstituzioak haurren lana debekatu egiten du, baina La Paz-en bertan milaka adintxikiko daude lanean”. Autoak garbitzen batzuk, zapatei dizdira ateratzen besteak, edo Potosiko mehategietan zikintzen dituzte eskuak.

Boliviarren ezaugarrien artean umiltasuna nabarmendu du Berrobiko bidaiariak. Hego Amerikan zehar

bakarrik bidaiatu du, baina ez du bakardaderik sentitu bisitatu dituen herrietako biztanleen hurbiltasunagatik. “Aitortu behar dut, Bolivian eman nituen lehenengo egunetan bakardade sentsazioa nabaritu nuela. Zerbait galdetu eta monosilaboekin erantzuten zidaten bertakoei. Mendeetan zurien mendeko izan dira, eta ez da harritzekoa”. Agurtzane “turismo justua” egiten saiatu da, hango herritarren mailan jartzen. “Bolivian bi euroarekin pasa dezakezu gaua, eta berrogeita hamar zentimorekin bazkaldu dezakezu. Bazkaltzeko hamar euroko aurrekontua izateak ez du esanahi hori xahutu behar duzunik. Hangoentzat, hamar euro dirutza da”. Bertako azoketako postuetan prestatuko zopak, barazkiak, frutak jan ditu, xoxak ere bertakoei utziz. Zeuk ere hori egiteko gomendatzen dizu Agurtzanekek, baldin eta bidaiaria hau inoiz egiteko gogoia piztu badizugu.



Argazkiak: Amaia Igartua

Ertamerika eta Hego Amerika barnetik ezagutuz

NIKARAGUAN HASI ETA BOLIVIARAINO, 6 HILABETEKO BIDAIA EGIN ZUEN AMAIA IGARTUAK

2007. urtean egin zuen Amaia Igartua ibartarrak bere bizitzako bidaia. Irakasle ikasketak amaitu ondoren, praktikak Nikaraguan egiteko aukera suertatu zitzaion. Gobernu sandinistak alfabetizatze kanpaina bat jarri zuen martxan. Proiektu horretan parte hartzeko, hamar ikasle euskaldun joan ziren Ertamerikako herrialde honetara. Leongo departamentuan dagoen Los Lechecuagos komunitatean egon zen hiru hilabetez. “Bertako familia baten etxean egon nintzen. Goizez eskolara joaten ginen umeekin egotera. Arratsaldeak berriz

Nikaraguan hiru hilabetezko egonaldia egin ostean, bizikleta hartu eta hegoalderuntz abiatu zen Amaia Igartua. Costa Rica, Panama, Kolonbia, Ecuador eta Peru igaro ondoren, Bolivian amaitu zuen sei hilabetezko bidaia. Inguru hauetan horren ohikoak diren leku turistikoak bazterrerara utzi, eta bertako herritarrekin nahastuz, benetazko Ertamerika eta Hego Amerika ezagutu zituen.

helduen alfabetizazioa lantzeko izaten ziren. Etxez-etxe ibiltzen ginen irakurtzen eta idazten jakitea zein garrantzitsua zen kontzientziazeko”, kontatu du Amaiak. Esperientzia aberasgarri gisa oroitu ditu zeregin horretan igaro zituen egunak. Baina aldi berean gogorra egin zitzaiola aitortu du: “Guk ez

genuen hango egoera ezagutzen; kanpotar batzuk joan eta ikasi egin behar zutela esatea, ba, gogorra egiten zitzaigun”. Ibartarraren hitzetan, Nikaraguan izugarriko pobrezia dago. Miseria are nabarmenagoa da bera egon zen departamentuan. “Beste herrialde pobreetan, gutxienez lurretik jaten dute. Ni

egon nintzen lekua ordea zonalde bolkanikoa zen eta ezin zuten lurrik landu. Herritarrrak, egunero *a la siembra* ateratzen ziren, bi orduko ibilbidea egin eta landu zitezkeen lurren bila. Soilik babarruna eta artoa landatzen zituzten. Ni egon nintzen etxean esaterako, egun batzuetan ez genuen jatekorik edukitzen”. Elikagairik ez dagoen lekuan, higiena eta garbitasuna bigarren mailako beharrak dira. Baldintza gogor horietan eta zapaldurik bizitu izan dira urteetan nikaraguarrak. Horregatik dio Amaiak, hango biztanleak “etsiturik” daudela. “Urteak daramatzate laguntza noiz



jasoko zain. 98. urtean, El Cerro Negro sumendia erupzioan sartu zen. Komunitate osoa txikituta geratu zenez, laguntza jaso zuten. Uste dute, berriro ere laguntzera etorriko zaizkiela”.

Horrenbestekoa da miseria, herrialdea ez dagoela turismoarentzat prestatuta. Hala ere, antolatutako autobus turistikoak igarotzen dira bertatik, inguruko sumendiak bisitatzeko. “Behin eskolan ginela, leihotik turistez betetako autobus bat ikusi genuen. El Cerro Negro sumendia ikustera zihoazen. Ez ziren era diskretu batean pasa. Haiek ikustean, irakasleak honela esan zuen tonu mespretxagarriz: *Quien demonios seran esos...* Nik ere autobusari begiratu nion eta pentsatu nuen: *Ni horinaiz*”. Amaiak gizarte horren egoera barrutik ezagutu eta bizitu zuen. Ikusi zuen nola begiratzen dituzten euren turistak. Beste era batera bidaiatu behar dela ohartu zen.

COSTA RICA ETA PANAMA BIZIKLETAZ

Hiru hilabete familiakide eta herrikide bat gehiago izan eta gero, zaila egin zitzaion Amaiari bizikletak hartu eta hura uztea. Ez zuen uste, Costa Rica-ko muga igaro eta aire berria horrenbeste eskertuko zuenik. Hiru hilabetez ez zuen kalean espalorik ikusi, ezta dutxarik ere. “Muga pasa eta alde handia nabaritu genuen” dio. Itsaso Pazifikoa aldetik egin zuten bidea, euri denboraldia zela eta, Caribe Itsasora ematen zuen aldean errepedeak egoera txarrean baitzeuden. “Paisaia zoragarriak ikusi genituen. Dena natur parkeez josita dago; animalia exotikoak ikus daitezke bertan, koalak esaterako”. Nikaragua ez bezala, Costa Rica turismoarentzat prestatuta dagoen herrialdea da. “Pazifikoa eta Caribea dauzka, parke natural aberatsak ditu, eta hondartza zoragarriak daude”. Guzti honek ordea badu bere alde txarra:

Ertamerikako herrialderik garestiena dela. Bertako bizi maila ere altuagoa da.

Panaman txanponaren bi aldeak ikusi zituzten: Aurpegi pobrean indigenak zeuden, lurraldearen gehiengoa hartzen zuten ohianetan bizitzen. Beste aurpegia Panama City zen. “Zonalde aberatsa da hau. Kasinoz beteta daude kaleak, eta limusinak gora eta behera ikusten dituzu”. La Voca del Toro hondartzak, San Blas uhartea eta sumendiak dira atzerritarrak bisitatzeko dituzten lekuak.

Panamaraino bizikletaz egin zuten bidea Amaia eta bere lagunak. Panamerikana errepedeari jarraituz egiten zuten hegoalderuntz. “Baina Panamerikanaren inguruan ez zegoen hango benetazko bizitza ikusterik. Eta guk nahi genuena, bertakoekin nahastu eta euren bizimodua ezagutzea zen”. Beraz, bizikletak uztea erabaki zuten. Panamako ohianean aurkitu zuten getxotar batekin bidali zituzten etxera. “Getxotar

hau medikua zen. Hogei urte zeramatzan Panamako indigenak alfabetizatzen. 140 beldar sendagarri baino gehiago katalogatuta zituen. Indigenei autonomoak izaten erakustea zen bere lana”.

Panama eta Kolonbiako muga ibaian barrera zeharkatu zuten Capitan Leonardoren belaontzian.

KOLONBIA, IZU GUZTIAK GAINDITUZ

Cartajena hirian lehorreratu zirenean, bertan aurkitu zuten alaitasunak harritu zituen. “Oso herrialde alaiak dira Kolonbia; ez dut inoiz han bezainbesteko alaitasunik ikusi”, dio Igartuak irriz. Farc gerrila eta paramilitarren arteko gatazkagatik, Kolonbiako herrialde arriskutsuaren ospea hartu du nazioartean. Entzundakoarengatik, lehenengo egunetan “inseguritate sentsazioarekin” ibili ziren hiriko kaleetatik. Herria eta herritarrak arduratu ziren bidaiariaren izua uxatzeaz. “Hiri eta kaleetan lasai asko ibili zaitezke. Leku arris-

kutsuren bat baldin badago, herritarrek beraiek ohartarazten dizute. Guk esaterako mendian ibili nahi genuen, eta eurek ez joateko gomendatu ziguten”. Komunikabideek zabaltzen duten izuak eraginda inork gutxik bisitatzen du Kolonbia. Baina Amaiak herrialde hau ezagutzera animatu nahi du jendea. “Lehen aipatutako gatazkaz gain, Kolonbiak fama txarra du droga ekoizten dutelako. Kontutan hartu behar da ordea, bertan ekoizten duten droga beste herrialde askotan kontsumitzeko dela”.

Kolonbian ez, baina Ecuador-en izan zuten mendian ibiltzeko aukerarik. Andeak mendikatearen eremuan jada, El Trekking de los Condores egin zuten, ibilaldia Cotopaxi mendian amaituz. “Oso ederra da. Pirinioekin alderatuz beste dimentsio bat dute Andeek. Gu gidarik gabe joan ginen, ondo moldatu ginen gainera. Nik uste dut, mendian ibiltzen ohituta bazauz bakarrik molda zaitezkeela”.

Behin Ecuador-era joanda, Otavalo herria ezagutu gabe ezin dela itzuli esan du ibar-tarrak. Inoiz ikusi duen azokarik handiena aurkitu zuen bertan. “Kolonbia, Peru eta Ecuador bertatik joaten dira ekoizleak beraien produktuak saltzera”. Quito, Ecuador-eko hiriburua ere oso atsegin egin zitzairen erreportai honetako protagonistei. “Quito ez da hiri handia, erraza da bere kaleetatik ibiltzea. Oso gustura egon ginen. Gainera bertan ostatu hartzea oso merkea da. Herritarrek logelak alokatzen dituzte, sukaldea eta komuna erabiltzeko eskubidearekin. Azkenean apartamentu konpartituak dira, eta oso modu onean gainera”. Horregatik bidaiari asko Quiton hartzen du ostatua eta Ecuador ezagutzeko ber-



tatik egiten ditu irteerak. “Quitok beste gauza bat du ona: Lurraldearen erdian dagoela. Horrela, hegoaldea, iparraldea, mendebaldea eta ekialdea, dena gertu geratzen

da”. Munduaren zentrua ere Quiton dago.

PERU, LURRALDE ANITZA

Euri denboraldia zela eta ezin izan zuten men-

dian ibili. Peruko bazter liluragarriak ezagutzen igaro zituzten egunak. “Peru fisikoki oso lurralde aberatsa da. Denetik dauka: ohiana, desertua, mendia, hondartza... Aukera guztiak daude. Horregatik edonorentzako destino egokia da”.

Ecuador-etik mugitzea erraza bada, Peruk eragozpen gehiago ditu horretarako. “Oso lurralde handia da, eta herri bate-tik bestera, distantzia handiak daude”. Peru ondo ezagutzeko, bi hilabete behar direla kalkulatu du Amaiak. Denboraz urriago ibiliz gero, Guara, Cuzco, Machupichu eta Titik Kaka lakua ezagutzeko gomendatzen du.

Amaia Igartuak eta bere lagunak Bolivian amaitu zuten horrenbeste hilabetez luzatu zen bidaiak. Oso gutxi ezagutu zuten Bolivia. Baina La Paz-en eman zuten denbora nahikoa izan zen, gehiengo indigena den herrialde honetan dagoen miseria-jabetzeko. ■



ABALTZISKETA >>> ABUZTUAREN 8AN ARRATSALDEKO SEIRETAN ABIATUKO DA PATXI CAMINOS LARRAITZE

Txindoki hamabi aldiz: Zaila,

Beti izan du gogoia Patxi Caminos-ek bere buruari erronka bat botatzeko. Ez da uskeriatan ibili. Hogeita lau orduetan Txindoki hamabi aldiz igo nahi du, eta horrela, Iker Karrera amezketarrak jarritako marka (Txindoki hamaika aldiz igo zuen) ondu. Badaki zaila dela, baina bere burua gai ikusten du horretarako. Tolosarra jaiotzez, Abaltzisketan bizi da Patxi. Txindoki lainoak hartuta dagoela egin diogu elkarriketa.

Leire Zubeldia

Zer moduz doaz prestaketak?

Nahiko ondo. Azken asteetan entrenamenduen erritmoa jaitsi behar izan dugu, hantakako giharrak minduta eduki ditut eta. Orain hobeto aurkitzen naiz hala ere. Azkeneko traka besterik ez zait falta.

Hiru aste eskas falta dira abuztuaren zortzirako. Eguna gero eta gertuago dagoela ikusteak urduri jartzen al zaitu?

Bai. Gorputzean tentsioa nabaritzen da. Badakizu zer datorkizun gainera, eta horrek urduri jartzen zaitu. Dena den, eguna iristeko gogoia ere badut. Egin beharrekoak egin eta bakea!

Noiz hasi zinen entrenamenduekin?

Urte hasieran hasi nintzen pentsatzen. Lehen ere kirola egiten nuen, nire gorputza sasoiari mantentzen saiatu izan naiz beti, horretarako beharrezkoa den prestaketa eginez. Baina artean ez nuen erronka hau egiteko asmorik.

Zer dela eta sartu zara abentura honetan?

Beti izan dut gogoia horrelako erronka bat egiteko. Bizikletan asko ibili izan naiz, eta mendian ere gogotsu hasi nintzen. Urte bat daramat dieta makrobiotikoa egiten. Lehen

argala nintzen, eta makrobiotikaren munduan sartu naitzenetik gehiago argaldu naiz. Jendeak esaten zuen gaixorik nengoela, eta komentario itsusiak entzun behar izan ditut. Hortik dator erronka hau. Nik ez dut gaixotasunik, ondo nago. Eta hori demostratzeko bota nuen erronka. Makrobiotika eliteko kirolari batenztat ere baliogarria izan daitekeela erakutsi nahi dut.

Zergatik txindoki eta zergatik Iker Karrerak jarritako marka?

Txindoki, bertan daukadalako. Eta zergatik marka hori? Nire prestatzaileari esan nionean horrelako zerbait egin

“Makrobiotika eliteko kirolari batenztat ere baliogarria izan daitekeela erakutsi nahi dut”.

nahi nuela, berak Ikerren marka aipatu zidan. Horrela erabaki genuen erronka hau egitea.

Abuztuak 8, larunbata izango da aurten. Zein orduetan abiatuko zara?

Arratsaldeko seiretan hasiko naiz hurrengo eguneko seirak arte. Larraitzeko langa izango da itzuli



Txindoki 12 aldiz igo nahi du Patxi Caminos-ek



Bidaiarik erakargarrienak

Korreo kalea, 5 - TOLOSA | Tel.: 943 674 566 | Faxa: 943 674 113



**errrotatxo
okindegia**

Andia kalea, 3
Tel.: 943 655 492

Amaroz, 9-A
Tel.: 943 671 038

baina ez ezinezkoa

bakoitzeko abiapuntua eta helmuga.

Zure helburua 24 ordutan Txindoki 12 aldiz igotzea da. Bi ordu dituzu igoera eta jaitsiera bakoitza egiteko. Zer nolako estrategia erabiliko duzu?

Burua erabiltzea da garrantzitsuena. Jartzen dugun denboraren barruan ibiltzen saiatu behar dut. Ikusi beharko da buelta bakoitza zenbatean egiten dudana. Ordu bat eta berrogehi minututan eginez gero, pixka bat deskantsatu eta abiatu egingo nintzateke; baina beti ere bi ordu horiei minutu batzuk janez, hauek, deskantsurako, jateko eta edateko erabili ahal izateko.

Zenbat jende izango duzu zurekin?

Masajista eta prestatzailea hor egongo dira. Gero mediku bat ere izango da. Hautaz gain, nirekin gora eta behera ibiliko dira lagun batzuk. Azken hauen lana edaria eta jana eramatea izango da. Nik ez dut ezertxo ere eramango. Soilik bi makila izango ditut eskuan.

Eta nola prestatzen da bat erronka honetarako?

Hasieran gimnasioan ibili nintzen ariketa mordo bat egiten. Honekin batera,

zelaian korrika egiten hasten zara, fondo pixka bat egiteko. Gero, aldapa sartzen joaten zara, eta serieak egiten dituzu, gero eta gogorrago, erresistentzia lantzeko.

Fisikoki ondo prestatua egon behar da, baina fisikoa bezain garrantzitsua da indar psikologikoa ere. Gogorra behar du, arratsaldeko seiretan hasi eta hurrengo eguneko seirak arte iraun behar duzula jakiteak....

Prestatuta egon behar duzu, bai fisikoki eta baita psikologikoki ere. Itzuli bat egiten dudanean, beste bat egin behar dudala pentsatu behar dut. Ezin dut hamabi itzuli egin behar ditudala pentsatu. Hasieratik atzera zenbaketa egiten hasten banaiz oso gogorra egingo zait. Hala ere, psikologikoki baino gogorragoa izango da fisikoaren aldetik.

Txindokin bertan ari zara prestatzen?

Ekainean hasi nintzen Txindokin. Ordura arte Ibarra aldean ibili naiz.

Zer esaten du jendeak? Denetarikoz iritziak egongo dira...

Orain gutxira arte hiru heritarrek egindako apustua egon da denen ahotan; orain ni naiz hizpide. Jendeak zaila

dela esaten du. Hori ere badakit nik, baina ez dut ezinezkoa ikusten. Nire burua marka hausteko gai ikusten dut. Helburua hamabi itzuli egitea da, baina lortzen ez badut ere, lan txukun bat eginez gero gustura geratuko naiz.

Hamabi itzuli horiek egiten ez badituzu...

Hamar itzuli egiten badituz gertatuko naiz. Baina helburua argi daukat.

Zer eskatzen diozu abuztuaren zortziari?

Eguraldia ezin da enkargatu, baina eskatze-kontan ateri egon dadila eta bero handirik gabe. Bestela, egun polit bat izatea nahi nuke. Etor daitzela apustua ikustera eta ea ikuskizun eder bat ematen dugun. Nik nire aldetik, saiatuko naizela ziurtatu dezaket. ■



Zumardi
 SEGUROS BILBAO

Aholkularitza integrala
 Laskurain, 8-behea
 TOLOSA
 Tel.: 943 651 877

Beatriz
 Dekorazioa
 Donostia - Tolosa

Donostia	Donostia	Tolosa
San Martin, 16	Garibai, 8	Rondilla, 11
943 425 886	943 420 259	943 670 615
943 420 187	943 430 947	943 671 149

- Gortinak
- Edredoi nordikoak
- Mantak
(bat erosita beste bat opari)
- Ohazalak
- Alfonbrak etab.

ZALBIDE
 Tolare Sagardotegia

Haragiak eta arrainak parrilan.
 Ostirala, larunbata eta igande eguerditan irekita, iluntzetan egunero.

Zalbide baserria - Abaltzisketa
 Tel.: 943 652 176

TOLOSA >>> IBAI ONDOKO APARKALEKUAN AUTOAK ARRASTOA EGINDA EDO ERRETROBISOREAK HAUTSITA

Belateko bizilagunak aparkalekuekin kezkatuta

Aparkalekuak, Belate auzoko bizilagunen kezka iturri bilakatu dira. Anoetara doan errepidearen ondoko aparkalekuan utzitako autoak erasotua izan dira behin baino gehiagotan. Ondorioz, auzokoek ez dute euren autoa bertan utzi nahi; baina ibai ondoko plaza hauek kenduta, Belaten ez dago autoa uzteko aukera handirik.

Leire Zubeldia

Ekainaren 20 eta 21aren arteko gauean gertatu zen, artean Anoetara doan jaiak ospatzen ari zirela. Igande goizean, Belateko bizilagunak ibai ondoko autoaren bila joan ziren. Ezusteko latza hartu zuten, 14 auto kaltetuta zeudela ikustean. Batzuk arrastoak zituzten txapan; beste zenbait autok berriz, erretrobisorea apurtuta zuten. Galtzaundik Belaten bizi den herritar baten ahotik jakin du gertatutakoa. “Panorama ikusi genuenean udaletxera deitu genuen. Udaltzaingoa hemen izan zen argazkiak ateratzen”, kontatu du. Handik aste beterra, leku berean gauza bera

gertatu zen. “Salaketak jarri ditugu, baina udaltzaingoa ez digu esperantzarik eman. Gure aseguruak kalteak beregain hartu ezean, geure poltsikotik ordaindu beharko dugu dena”.

BIZILAGUNAK KEZKATI

Gertatutakoak ikusita, Belateko bizilagunak ez dute autoa Anoetara doan errepide bazez eraman utzi nahi, nahiz eta OTA zerbitzua jarri, eta eremua argiz-

tokia egongo da gehienez jota. Maiz, kanpotarrak izaten dira gainera bertan autoa uzten dutenak. “Azkeneko urteetan, 100 aparkaleku baino gehiago kendu dituzte bidegorria egin eta espaloia zabaltzeko”, dio bizilagunak, “etxe tarteetan gertatzen diren kaletxoak ere oinezkoentzat egokitu zituzten. Hor ere ezin da autorik utzi; isunak jartzen dituzte gainera”. Egoera honen aurrean bi aukera dituzte auzoan: “Autoa ibai

ZEIN DA KONPONBIDEA?

Egoera hau konpontzeko zer egin ez dakite Belaten. Udaletxean esan diete eremua zainduta dagoela. Hala ere, auzokoak ez daude lasai. “Gutxienez, bizilagunoi ez diezagutela isunik jarri autoa espaloiarenean gainean uzteagatik”, dio lekukoak. Euren eskararak indartzeko sinadura bilketa bat egiteko asmoa aipatu du.

ERASO GEHIAGO

Ez da Belate auzoan horrelako zerbait gertatzen den lehengo aldia. Duela urte bete bizilagun baten furgoneta kixkailita geratu zen norbaitek kontenedoreari su eman ondoren. Inor ez da ezbehar horren arduradun egin. “Udaletxeak esan zuen zaborra biltzen duen enpresaren ardura dela. Azken hauek ere eskuak garbitu zituzten, soilik zaborra biltzeaz arduratzen direla esanez”. Ezbehar horretan bertan kaltetuta geratu zen etxe-ko fatxada. Azken kalte hauek bai, aseguru etxeak beregain hartu zituen. “Maiz erretzen dituzte auzoko kontenedoreak; duela hilabete bat azkena”. Bizilagunak lasai bizi nahi dute ordea; hurrengo goizean autoa utzi bezala topatuko dutela pentsatuz lo egin.



Azken urteetan doako 100 aparkaleku kendu dituzte Belaten.

tatu duten. Honekarazo bat sortzen du: Aipatutako aparkamendu plazak kenduta, Belaten autoa uzteko oso leku gutxi dago; Etxe blokeen aurrean 10 plaza besterik ez daude, eta trenbidearen ondoko aparkalekuan beste 30 autorentzako

ondoan uzten badut, hautsi egingo didate; etxe ondoan uzten badut berriz, isuna jarriko didate”. Dirudienez, nahiago dute isuna ordaindu autoa apurtzeko arriskua pasa baino. Bizilagun batek baino gehiagok isun mordia du pilatuta.



Irakurri Gozatu eta Oparituren opari txeeke zozketa!

Saridunak:
Mikel Garaikoetxea Onsalo (Belauntza)
Gema Garmendia Elola (Alegi)
M^o Pilar Mujika Aranzadi (Tolosa)
Inaxio Goenaga Iturburu (Ibarra)
Julen Orrantia Ortiz (Tolosa)

Opari txeeke bakoitzarekin %25eko deskontua egingo zaizue Tolosako Elkarte megadendan liburu bat erostean.

galtzaundi
G O Z A T U E T A D E A



Garbiñe Ubeda, ezkertasunaz gai librean

MILA EZKER LIBURUA ARGITARATU DU GARBIÑE UBEDAK SUSA ARGIALETXEAREKIN

Leire Zubeldia

Beti izan al duzu begi bat ezker-tasunari edo ezker izateari begira?

Bizitza osoa ia ia, ni ere ezker bainaiz. Gaia aspaldidantik jarriatu badut ere, duela lau urte hasi nintzen materiala biltzen. Hortara jarri eta haurrak izan nituen, lanak ere denbora kentzen dizu; bat eta beste, denbora joan egiten da. Gainera, hasieran liburuari eman nion formarekin ez nengoen konforme. Mota bateko testuak idatzi nituen, oraingoak baino askoz ere periodistikoagoak; notizia hut-sak. Une bat iritsi zen, gustatu ez zitzaidana. Liburu oso bat irakurtzeko aspergarria gertatuko zela iruditu zitzaie-

Azaleko izenburua irakurrita, politikaren alorreko "ezkerrez" hitz egingo duen liburu bat dela pentsa liteke. Aurkibidea irakurtzen baduzu ordea, berahala jabetuko zara, Garbiñe Ubedak (Tolosa, 1967) esku baldarraz, ezker vs. eskuinaz, ezker harrotasunaz jardun nahi izan duela. Mila Ezker saiakera ez da ezkerrentzako auto-laguntza liburua. Ezker izateari buruz dauden topikoak hautsi nahi ditu, eskubientzat prestatuta dagoen mundu honetan ezkerrek dituzten oztopoez ohartarazi. Baina batez ere, istoriotxoak idatziz, pretentsiorik gabe, jardun nahi izan du. Gai librean, ezkertasunaz idatzitako saiakera duzu hau.

dan. Orduan, beste era batera hasi nintzen; anekdotak eta pasarteak bilduz. Honek ere, aurreko testuen oreka behar zuen ordea. Azkenean, bi testu motak nahasten bukatu nuen.

Liburura ekarri dituzun anekdota eta pertsonaien artean, bada bat bereziki nabarmendu duzuna: Julian Ajuriagerra.

Hau psikiatra zen, baina hego Euskal Herrian ez zen baxterez ezaguna. Honek bazuen

anaia bat, Juan Ajuriagerra; eta hau bai, ospetsua zen oso, PNV alderdian politikari lanetan aritu baitzen. Hego Euskal Herrian Juanen izenarekin geratu ginen, eta aldiz, Julian ez genuen ezagutu. Baina azken hau, oso ospetsua zen mundu mailan. Frantzia eta Europa osoan oso psikiatra prestigio-tsua zen.

Niretzat sorpresa handi bat izan zen Julian Ajuriagerra. Bera da ezkertasunaz idatzitako duen lehenbiziko euskalduna, eta gu ez ginen konturatu ere egin. Frantsesez plazaratu zuen liburua, 1963. urtean. Ezkerrei ezker izaten utzi behar zitzaie defendatzen

(hurrengo orrian jarraitzen du)

(aurreko orritik dator)

zuen. Berak zihoen, ez zela gaixotasun bat, ezaugarri bat zela. Kosta zitzaidan bere liburua eskuratzea. Ingeleseko bertsioan lortu dut, antigoaleko gauzak saltzen dituzten denda batean urrea ordainduta. Deskubrimendu handia izan zen niretzat, eta liburuan tartea eman nahi izan diot.

Hasiera hasieratik aipatzen da Ajuriagerra. Azala ere, bere lanari egindako keinu bat da. Berak Parisen egin zituen unibertsitateko ikasketak, eta harreman handia izan zuen artista surrealistenekin. Azken finean hori da azala: Surrealismoari keinu bat. Ikusi dezakezuen bezala, ez da ezkertasunari buruzko ohiko irudi bat: Ume bat ezker eskuarekin marrazki bat egiten. Kutsu pedagogiko hori kendu nahi nion, ez baita lan pedagogiko bat; irakurgaiak dira.

Ajuriagerraz gain, bada ezkertasuna landu duen beste autorerik?

Badaude batzuk. Gehien bat, psikiatria arduratu da gai hau aztertzeaz. Aurkitu dudana material gehiena ikerketak dira. Chris MacManus delako batek esaterako, biblia oso bat du idatzita ezkertasunari buruz. Ikerketa pila bat bildu ditu bertan. Hau Britainia Handikoa da, baina gai hau jorratu dutenen artean, gehienak amerikarrak dira. Oro har, testu periodistikoak dira. Hori gaintitzen saiatu naiz ni istoriatxoak idatziz.

Musikari, artista, idazle eta kirolari ezkerren anekdotak bildu dituzu. Eta zure esperientzia pertsonalak zer leku du?

Nik leku gutxi daukat liburuan. Hasieran aipatzen da musika ikasi nahi nuela. Ezin izan nuen ordea. Hutsune bat sortu zidan horrek. Solfeora joaten hasi nintzen. Baina konpasa eskuinarekin erama-

ten zen, musika instrumentuak eskuinentzat prestatuak zeuden... Gaizki amaitu nuen.

Liburu honekin gauza asko gaintu nahi nituen. Batez ere, ezker askok duten zapuzkeria: "Mundu hau eskuinentzat da!", "ez gaituzte kontutuan hartzen!". Ez naiz horretan sartu. Gainera eskuinak sartu ditut. Argi nuen ezin nuela datuak eman eta eman ibili. Uste dut, ezker izatea ezaugarri bat besterik ez dela. Ezaugarri garrantzitsua da noski, emakumea izatea bezala. Ezker izatea zara eta horrek ez du atzera bueltarik. Hori defenditu nahi izan dut, baina era elegante batean, zapuzkeriarik gabe.

Ezker izatea, sufritu, pairatu edo naturaltasunez eramaten da?

Denetatik pixka bat. Beste gauza bat ere tokatu zait: Ezker izateagatik loreak botatzea. "Ezker sortzeko ahal-

men gehiago duzue", esaten dute. Txikitari sufritu nuen, baina ez horrenbeste; Ikastolan ez zuten inongo eragozpenik jarri. Musikarekin, etxe-tresnekin... Horiakin bai sufritzen da. Hala ere, ezkerrok ahalmen berezi bat daukagu: Egokitzeko ahalmena.

Ezkerrek direnei auto-laguntzako liburu bat eskaintzea ez bada saiakera honen helburua, zer da, eskuina den gehiengoari egunero topatzen dituzuen oztopoez ulertaraztea?

Hori ere bai, zeharka. Berreziki, istoriotxo batzuk kontatzeko gai polit bat izan da niretzat. Ez dut pretentsio handirik eduki. Nire liburua ez da eskubientzat egina ezkerrok nolakoak garen jakin dezaten. Gehiago izan da, gaiari buruz hitz egitea, baina gai librea. Besterik gabe.

Topikoak haustera ere badatorrela esan duzu. Zein topiko daude ezkerren inguruan?

Tarteka ikerketak ateratzen dira argitaratu, zeinak esan dezakeen, ezkerrek askoz ere buru argiagoak direla matematikatarako. Horrek akats potolo bat du: Ezker guztiak zaku berean sartzea. Ezkerren munduan ordea bada mailaketa bat. Batzuk ondo moldatzen dira eskuinen munduan, eta beste batzuk ez. Eskuinen artean ere antzeko zerbait gertatzen da. Batzuk eskuinez idazten dute, baina ezkerrez jotzen dute baloia. Nik zaku horiek puskatu nahi izan ditut. Topikoak txarrak dira, errazkerian erortzen direlako.

Duela gutxira arte pentsatzen zen ezker eskuindua egin zitekeela. Eskoletan egin dira ahaleginak. Ba al dago zuzentzerik?

Batzuena bai. Askok dira eskuindua dituzten ezkerrek. Baina ezker edo eskuina izatea alde batera utzita, goa-



"Garbi daukat kirola esker hasi zirela ezkerrek libre izaten"

zen albotasunaz hitz egitera. Pertsona guztiok albotasun markatua dugu. Batzuk ezker-rrak dira, eta beste batzuk eskuinak. Zenbait pertsona anbiguoak dira: Ezkerra erabiltzen dute zenbait gauza egiteko, eta eskuina beste gauza batzuetarako. Mundua eskuinentzat eginda dagoenez, ezkererako joera duen pertsona hori eskuindu egin liteke. Esate baterako, Jose Luis Otamendi idazleak ezkererako joera zuen, baina eskolan eskuindu egin zuten. Beste batzuk eskuintzea aldiz ezinezkoa izango da. Zergatik? Ezker bete-beteak direlako. Eskuina erabiltzen saiatuko dira, baina ezkertasuna nonbaitetik aterako zaie.

Historian zehar ezkertiak gaizki ikusiak izan dira. Horren adibide hizkuntza ezberdinetan aurkitu dituzun esapideak: “Me he levantado con el pie izquierdo”, “no haces una a derechas”... Euskaraz ez duzu horrelakorik aurkitu. Zein ondorio atera dezakezu hortik?

Nik ondorio bat ateratzen dut: Ziurrenik, latinak hain gogor jo zuen arte hemen ezkerrek ez ziren gaizki ikusiak. Hizkuntza gure pentsamoldearen isla dela esaten da. Hori horrela izanda, garbi dago, latinetik datozen hizkuntza guztien isla txar hori pentsakerarekin bat datorrela.

Ni ez naiz linguista, baina uste dut, Euskal Herrian ezkerrea ez dela historikoki gaizki ikusia izan. Bazterkeria hori eskolarekin batera iritsi zen hona, eta gehien bat, azken bi mendeetan. Inkentzat ere, ezker izatea zortekoa zen. Hau ez dator bat munduko kultura nagusiekin; ezkerren oso kontrakoak izan dira. Baina lehengo kulturak ez dira hain gogorrak izan, eta lehengo kulturen artean sartzen dut gurea ere.

Arraroak izatetik jeinu izatera igaro zarete. Liburuaren amaieran, Maradona eta Navratilobari eman dizkiozu eskerrak. Zergatik?

Txiste moduan jarri dut hori. Baina nik garbi daukat kirolari esker hasi zirela ezker-rrak libre izaten. 1986. urteko Mundialean izugarritzko euforia piztu zen Maradonaren kontura, eta ezkerria izatea izugarria zen! Eskerrak ematekoa da, ez aipatutako bi kirolariei bakarrik, kirolari berari baizik. Kirolak ezkerria onartu egin du hasieratik.

Eta musikak?

Musikak ere liberatu gaitu, baina askoz ere beranduago. Gainera, musika modernoak ekarri du musikari ezkerren onarpena. Musika klasikoa oraindik ez da hori iritsi. Zein orkestratan ikusi duzu flauta trabesera ezkerrealdara jotzen?

Historiara pasa diren ezkerrek gainontzeko ezkerren artean harratasun sentimendu bat zabaldu dute agian...

Jakina. Niri behintzat ezkerria izateaz harro sentituarazi naute. Ohikoa da baita ere konparazio interesatuak egitea: “Ni horrelako naiz”. Askotan, euforia horrek gezur-rrak esatera eraman gaitu gainera. Bolada batean esaten zuten Albert Einstein ezkerria zela. Ba, ez da ezkerria.

Inoiz aldarrikatu da ezkerren eta eskuinen arteko berdintasuna?

Inoiz ez, eta gainera alferrik izango litzateke. Eskuinak beti izango dira gehiago. Frogatuta dago ezkerrekin batera beligeranteak izan ez diren herrietan ere, ezkerren kopurua mantendu egin dela urteetan. %10 eta %15aren artean dabilza. Kondenatuta gaude.

Hala ere, hor badago beste aldarrikapen bat: Gauzak



egiten direnean, bientzat egitea, eta ez eskuinentzat bakarrik. Ezkerren eguna ere badago: Abuztuaren 13a. Herrialde batzuetan ospatu egiten dute. Ezkerrek elkartu egiten dira eta beraien aldarrikapentxoak egiten dituzte.

Simpson familiaren bizilagunak, Flanders jaunak duen Leftorium-ik bada Springfield-ik kanpo?

Lehen Bilbon bazegoen bat, baina itxi egin zuten. Behin lata-irekigailu bat erostera joan nintzen. Badakizu non aurkitu nuen azkenean? Farmazian. Pentsa ezkerrek zein ortopedikoak garen. Gaur egun, internetez erosten dira horrelako gauzak.

Ze erantzun jaso duzu irakurle-enganetik?

Bat-batean ezker pilo bat azaldu zaizkit inguruan. Harrera ona izan du. Jende gehienak esan dit sorpresa izugarria hartu duela liburuarekin, pentsatu dutelako, auto-laguntzako liburu bat izango zela. Istoriotxoak aurkitu dituztenean sorpresa atsegina hartu dute. Horrela transmititu didate behintzat.

Arantzaxo bat geratu zait: Motz geratu zaidala liburu. Ez nuen jendea nekatu nahi, eta istorio mordoxka bat geratu zait kanpoan. Hau konpontzeko, web gune bat sortu dut, eta pixkanaka liburuan sartzerik izan ez duten istoriotxo horiek argitaratuz joango naiz. www.argia.com/ antioarena helbidean aurkituko dituzue. ■

IRAKURZALETASUNA >>> TOLOSAKO UDAL LIBURUTEGIETARA JO DU GALTZAUNDIK LIBURU MAILEGUEN ESTEA

Zenbat irakurtzen da euskaraz?

Euskarazko liburuei hauts gehiago pilatzen zaie gainean gaztelerazkoei baino. Ez da ikerketarik egin behar ondorio horretara iristeko. Galtzaundik ordea, datu zehatzak jakin nahi izan ditu; eta datuetatik haratago, arrazoiak eta balizko aurrera-bideak aztertu. Tolosako Udal Liburutegietako arduradunarengana jo du horretarako.

Leire Zubeldia

Aurten lehenengo aldiz, Irakurri, Gozatu eta Oparitu programa antolatu du Galtzaundik, Tolosan, euskarazko irakurzaletasuna bultzatzeko helburuarekin. Apirilean hasi eta uztaila amaierara arte, udal liburutegietan euskarazko liburu bat maileguan hartzen duenak, oparti-txeke bat jasoko du, Elkar megadendan euskarazko liburu bat erostean %25eko deskontuaz gozatzeko. Egitasmoaren balorazio bat egiteko elkartu da Galtzaundi Susana Larre, Tolosako Udal Liburutegietako arduraduna, eta Arantza Lopez liburuzainarekin. “Helduen liburutegian, iazko datuekin alderatuta, aurten zer-



txobait igo da euskarazko liburuaren mailegua, egitasmoak iraun duen hilabeteetan (apirila, maiatza eta ekainean). Haurren liburutegian berriz, ez da aldeirik nabaritu, datuei dagokienean behintzat”, azaldu du Larrek. Opari-txekeak berriz gutxi banatu dira: Aranburu Jauregian 5 eta Errota liburutegian 10 besterik ez. “Jendeak ez du liburuak erosten dirurik gastatu nahi. Opari-txekea eskaini eta esaten dute: *Zertarako erosiko dut liburu bat hemen denak badauzkat?*”, gaineratu du Lopez-

ek. Dena den, Irakurri, Gozatu eta Oparitu egitasmoa eraginkorra izan da alderdi batean: “Egitasmoarekin batera egin den euskarazko liburu gomen-dagarrien zerrendak ondo funtzionatu du. Liburutegian txoko bat egin dugu zerrendan agertzen diren tituluekin. Jende askok aukeratu du bertako liburu bat”. Kuantitatiboki jauzi nabarmendik ez badago ere, kualitatiboki pauso txiki bat nabaritu dute iaztik hona. Jendeak, euskarazko liburuaren gainean iritzia eskatzen dio liburuzainari.

EUSKARA VS. ERDARA


Ondoko taulari begiratu gero, ikus dezakezue zein den aldea, Tolosako udal liburutegietan maileguan ematen diren euskarazko eta erdarazko liburuaren artean. Helduen liburutegian, aurreko urteko datuei erreparatu, batezbeste, hilean erdaraz argitaratutako 500 liburu mailegatu ziren, euskarazkoak 40 alderen bueltan zebiltzan bitartean. Aurten euskarazko maileguen kopurua zertxobait igo bada ere, aldeak handia izaten jarraitzen duela ohartarazi du liburutegie-



Auzoetxe

LORATEGIA CB
 Etxebarru zela kalerako lorak.
 Lorategi lanabesak.
 Lora legor eta apaindura tresnak.

Santa Luzia Auzoa, 1 - Tel.: 943 673 118 -TOLOSA



Saldías Miguel

**CORREDURIA DE SEGUROS
 ASEGURUETAKO ARTEKARITZA**
 N. D.G.S. J.1759

SALDIAS MIGUEL - Nafarroa Etorbidea, 12-behea
 Tel.: 943 651 189 - 943 653 462
 Faxa: 943 653 462 - 20400 Tolosa (Gipuzkoa)

Bizi-asegurak
 Kotxe-asegurak
 Istripuak
 Gaisotasunak
 Ospitalizazioak
 Subsidioak
 Lan-istripuak
 Enpresa txiki eta ertainak
 Erantzukizun zibila
 Etxe-asegurak
 Denda-asegurak
 Erretiroak
 Inbertsio fondoak



tako arduradunak. Honen arrazoiak nahiko argi dituzte Udal Liburutegietako langileek. “Jendea ez dago euskaraz irakurtzera ohituta. Euskaraz hitz egiten duena ere, gaztelerazko liburu batekin askoz ere erosogo sentitzen da. Askok hiztegi arazoak izaten dituzte, eta uste dute ez dutela ezer ulertuko”. Euskarazko liburuen eskaintza zabala da oso Aranburu Jauregiko liburutegian. Gainera, argitaratu bezain agudo eskuratzen dituzte liburuak. Baina noski, erdaraz argitaratzen diren izenburuak liburuak askoz ere gehiago dira. “Hizkuntza guztietatik itzultzen da gaztelerara. Larsson, Cohelo edo ta Follet izugarri irakurtzen dira esaterako”. Larren hitzetan, euskal literaturan Best Seller-ak falta dira. “Oso obra ederrak eta onak plazaratzen dituzte gure idazleek; landuak, sakonak eta hausnarketarako bidea ematen dutenak. Baina oro har, jendeak liburu arinak eskatzen ditu; istorio interesgarriak baina aldi berean sinpleak, nobela erromantikoak, poliziakoak... Era honetako euskarazko liburuak falta zaizkigu”. Arantza liburuzaingaren ustez, 30 urte inguru dituztenak dira euskaraz gehien irakurtzen dutenak. “Gazteak berriz ez dira oso zaleak. Euren aisia erdaraz baita. Oro har, irakurri ere gazteleraz egiten dute”.

Haur liburutegian alderantzizkoa gertatzen da: Euskaraz liburu gehiago irakurtzen dira gazteleraz baino, nahiz eta alde ez den izugarria. “Jendeak uste du haurrentzat ona dela irakurtzea. Hala da; baina baita helduentzat ere, eta ez dira horretaz konturatzen”. Urte guztian, maileguan ematen diren liburuen kopurua altua da. Udan ordea, marka guztiak hausten dira, Biblioporrak egitasmoari esker. “Ikastetxeekin elkarlanean, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako ikasleentzako liburu gomendagarrien txokoa jartzen dugu. Izugarritzko arrakasta izaten du. Iaz 700 liburu eraman zituzten”. Gazteentzat ere antzeko zerbaitegiteko ideia lantzen ari dira.

IRAKURKETA TALDEA SORTU NAHIAN

“Euskaraz idatzitako liburu bat irakurtzen saiatuko naiz. Zein gomendatzen didazu? galdetuz etortzen da bat baino gehiago. Hain zuzen ere, hori da euskaraz irakurtzen hasteko jendeari falta ziona: informazioa”. Susanaren ustez jendeak ez du euskarazko literaturan erreferentziarik. “Gehienek ez dituzte idazleak kontrolatzen, ezta merkatuan dauden liburuak ere”. Erreferentziak horiek emateko, irakurketa taldea baino gauza egokiagorik

HAUR LIBURUTEGIKO 2009KO DATUAK

	Liburuak Euskaraz	Liburuak Gazteleraz
Urtarrila	571	421
Otsaila	558	530
Martxo	665	627
Apirila	617	670
Maiatza	488	551
Ekaina	405	447
Orotara	3304	3246

HELDUEN LIBURUTEGIKO 2009KO DATUAK

	Liburuak Euskaraz	Liburuak Gazteleraz
Urtarrila	70	428
Otsaila	43	402
Martxo	64	524
Apirila	67	601
Maiatza	52	461
Ekaina	56	500
Orotara	352	2916

ez dago. Datorren ikasturtean sortu nahi dute euskarazko irakurketa landuko duen taldea. “Aurten jarri nahi genuen martxan, baina liburutegiei irakurketa sustatzeko ematen zaigun diru partida barregarria da. Horregatik, Udaletxeko euskara sailera jo dugu, eta datorren urteko aurrekontue-

tan diru partida bat gordeko dute irakurketa taldea sortzeko. Ea jendea animatzen den eta irakurketa taldean izena ematen duen” Era honetan, ahoz-ahokoa sortu eta euskarazko liburuak irakurtzeko grina kutsatzea espero dute liburutegietako arduradunek. Ea hala den! ■



Juan Larrazpu eraikuntzak, s.l.

- Baserrietako igeltsaritza eta egurrezko esturketan adituak.
- Etxeen berrikuntzak:
- Fatxadak - Teilatua - Sukaldeak - Baiñu gelak, etab...



Baserriko haragia salmenta zuzena

686 325 511- Juan Antonio
686 301 313- Maria Luisa

www.baserrikoharagia.com
Mendizabal Baserria
20.248-Arama (Gipuzkoa)



ONAK
MARMOLAK, S.A.

Mota guztietako lanak:
Granitoan marmolean eta
beste harri batzuetan

Errazu poligonoa • Sailsa, 1 • URNIETA
Tel.: 943 331 227 • Faxa: 943 008 613

TXIRRINDULARITZA >>> ZAZPIGARREN HELMUGARATU ZEN HERNIALDEARRA EKAINAREN 30AN KANTABRIAN

Itsaso Leunda: "Ez dut iazkoa berdintzen"

Itsaso Leundak iaz jantzi zuen Espainiako txapela galdu du, baina txapeldun baten moduan: Erasoa jo eta ihesi egin zituen lasterketako kilometrorik gehienak. Helmugara iristeko kilometro gutxi falta zirela harrapatu zuen Marta Villajosana, aurtengo Espainiako Txapeldunak. Hala ere pozik dago Itsaso Kantabrian, Biran eta Tourrean egindako lanarekin. Datorren urtean ere Debararren jarraitu nahi duela aurreratu du.

Leire Zubeldia

Kantabrian Espainiako Txapeldunaren mailotarekin ateratu ziren irteera marrik eta hau gabe iritsi ziren helmugara...

Lehenengo urtekoa berdintzea oso zaila izango zela argi genuen.

Baina irteera marrik ateratu ginen guztiak genuen irabazteko aukera hori. Euskal Selektzioako txirrindulariak Eneritz Iturriagarentzat lan egitera ateratu ginen. Baina lasterketan ihesaldi bat suertatu zen eta bertan ni sartu nintzen. Bakoitzak bere aukerak zuketzen ditu. Zu ihesaldi batean aurkitzen zara eta ahaleginak egiten dituzu helmugara iristeko. Saiatu ginen ahalik eta urrutien iristen, baina azken kilometroetan Marta Villajosanak harrapatu gintuen. Ni indarrez eskas nengoen. Hasierako bost kilometroetan eutsi nion Martaren erritmoari, baina bera oso indartsu zegoen eta ihes egin zuen. Atzetik beste talde batek harrapatu ninduen. Bertan zetozen Eneritz Iturriaga eta Ane Santesteban. Beraiekin metarantz joaten saiatu nintzen, baina indarrez eskas nengoen eta helmugara iriste-

ko lau kilometro falta zirenean geratu egin nintzen. Azkenean zazpigarren postuan sailkatu nintzen.

Ni pozik nago nire esku zegoen guztia egiten saiatu naizelako. Ez dut iazkoa berdintzerik lortu, baina aurpegia eman dut; hori baloratzekoa dela iruditzen zait.

Zure burua erakutsi zenuen behintzat...

Nire asmoa lasterketa on bat egitea zen. Ikusi da, iazko Espainiako Txapelketa irabazi izana ez zela kasualitatea izan. Mailota jantzi nuenean esan nuen ez nuela nahi garaipen hura anekdota batean geratzea; oso gogor egin dut lan hori egi bihurtzeko eta nik uste dut nahikoa erakutsi dudala: Birako sailkapena eta Espainiako iazko eta aurtengo txapelketak begiratu gero ikusten da

Espainia mailan hor aurrean nagoela.

Pelotoiko begi guztiak gainean izango zenituen...

Iaz baino askoz gehiago. Aurreko urtean ezezagun bat nintzen; aurtengo Espainiako Txapelduna. Nabarmen ikusten zen hori lasterketan. Erasoa jotzen nuen bakoitzean izen garrantzitsu bat etortzen zen nire atzetik. Inoiz ez zidaten bakarrik uzten.

Ihesaldia sortzeko ekimena zurea izan zen gainera... Zaila egin zitzaizun?

Jo nuenean ez nuen uste irtengo zenik. Aurretik hiru eraso jo nituen eta ez ziren ateratu. Batetik, haize handia zegoen, eta bestetik, ihesaldia osatu genuen lau txirrindularietatik bi oso ahulak ziren. Aldiz, Cristina Navarro oso txirrindulari indartsua da. Biok bakarrik ikusi ginen; ihesaldi ahul xamarra zen eta zalantzak sortu zitzaizkigun hasieratik. Baina behin ihesaldi batean zoazela dena ematen duzu ahalik eta urrunen iristeko.

Espainiako selekzionatzailea zuregana hurbildu eta zorionak eman zizkizun...

Bai. Niretzat opari bat izan zen hori. Urte guztia neraman horrelako hitz batzuen zain. Moralez oso baxu iritsi nintzen helmugara errepidean gertatu ziren gauza batzuegatik, eta selekzionatzailea nigana etorri izana pizgarri bat izan zen une horretan. Bere konfidantza guztia erakutsi zidan, eta hori, pauso txikia, baina garrantzitsua da, gure kirol ibilbidea euren eskuetan baitago.



ndu, baina aurpegia eman dut”



Espainiako Txapelketa baino lehen Tourrean eta Biran egon zinen. Lasterketa hauetako mailak eta Kantabriar egon zenak ez dute zerikusirik...

Bata eta bestearen artean oso salto handia dago. Tourrekoa baino gehiago Bizkaiko Biran egon zen maila nabarmenduko nuke: Nazioarteko pelotoieko txirrindularirik onenak parte hartu zuten. Hemen hartzen duzun erritmoak eta errepidean bizi duzunak ez du zerikusirik Espainiako Txapelketako tropelarekin. Nazioartean beste era batera ibiltzen dira bizikletan, antolaketa maila handia dute... Benetazko talde profesionalak dira.

Nazioarteko talde profesional batean dabilen txirrindulariaren eta Debarrena Kirolgiko taldekide baten artean, zein alde dago?

Esate baterako, Eneritz Iturriaga goizean esnatzen da,

gosalduta egiten du, eta egun guztia dauka entrenatzeko; hori da bere egin beharra. Hemen go txirrindulari bat berriz, esnatzen da, gosaltzen du, lanera edo ikastera joaten da, eta soberan duen denbora entrenatzeko erabiltzen du. Hau da oinarria. Hemendik abiatuta sortzen dira beste desabantaila guztiak: Esaterako, entrenamendua bezain garrantzitsua da atsedena; ikasten edo lanean ari den txirrindulari batek ez du atsedena hartzeko betarik. Gero soldataren kontua ere hor dago. Hemen go taldeetako txirrindulariek ezin dute bizikletatik bizi. Lana egin behar dute, eta askotan, lanak ez dizu nazioarteko lasterketetan parte hartzeko biderik ematen. Dena gurrpil berean doa.

Hala ere, Debarrenako txirrindulariak munduko onenen pare-

an helmugaratu zarete aurtengo Biran...

Etapa guztietan talde nagusian helmugaratu gara, eta hori sorpresa bat izan da guretzat. Azterketak amaitu berritan joan ginen Bira korritzera, eta hala ere gurea defendatu dugu, nahiz eta oso gogorra egin zaigun hor aurrean ibiltzea. Horrek esan nahi du, bizikletari denbora gehiago emateko modua dugunean munduko onenen aurka lehiatzeko gai izango garela.

Emakumeen tropela lehiakorra al da?

Bai, oso. Lehiakortasuna errepidean eta errepidetik kanpo dago, eta ez duzu harremanik izaten beste taldeetako txirrindulariekin. Ni horrek harritu egiten nau. Triatloian esaterako, elkar lagunduz ibiltzen ginen lasterketa hasi aurretik. Proban noski, bakoitzak bere buruaren alde egiten du, baina helmugara iritsi ostean, arerioak lagun bilakatzen dira berriro. Emakumezkoen txirrindularitzan ez da horrela. Lehiakortasun hori nabarmenagoa da gainera Espainia mailan nazioartean baino. Taldekako kirola izan arren, oso indibidualista da.

Eroriko baten ondorioz berandu hasi zenuen denboraldia. Ze balorazio egiten duzu orain artekoaz?

Neguan azterketak zirela eta ez nuen tajuz entrenatu. Gero gainera lesionatu egin nintzen. Azkenerako apirila iritsi zen fundamentuz entrenatzen hasiteko. Denbora gutxi eduki dut nire burua prestatzeko. Hal ere gauzak nahiko ondo atezara zaizkit. Orain betiko galde- ra egiten diot nire buruari:

Ondo eta denboraz entrenatu izan banu?

Hemendik aurrera non ibiliko zara denboraldia bukatu bitartean?

Printzipioz, Euskal Herrian antolatzen diren lasterketetan parte hartuko dugu, eta Espainiako Koparako puntuagarriak diren lasterketetan ere izango gara. Abuztuan berriz Italiako itzuli batera joan nahi dugu. Baina hau dena ez dago konfirmaturik. Dena bertan behera geratzen bada, jubeni mailako mutilen lasterketak egingo ditut datorren urteko denboraldia prestatze aldera.

Beraz, txirrindularitzan jarraituko duzu...

Iaz esan nuen urte bete emango niola txirrindularitzari eta gero triatloira itzuliko nintzela. Baina konturatzen zara, urte betek ez dizula ezertarako ematen. Gauza asko ditut oraindik ikasteko. Badakit triatloian noraino iritsi nahiteke. Txirrindularitzan zerbait egin nahi badut, orain da unea. Ez dut erdibidean geratu nahi.

Txirrindularitzan bai, Debarrenan ere bai?

Bai. Hemen baldin banago nire taldearengatik da. Ez dakit kirol honen gogortasuna jasan- go nukeen beste talde batean banengo. Denboraldi hasieratik presio guztia kendu didate, pertsona bezala asko zaindu naute eta hori eskertu egiten da. Oso oso gustura nago, bai zuzendaritzarekin eta baita taldekideekin ere. Nahiz eta eskaintzak eduki, bertan jarraituko dut. ■

Uztailaren 17tik aurrerako hitzorduak

Ekitaldiren baten berri eman nahi baduzu, deitu 943 655 004 telefonora edo idatzi e-posta bat: erredakzioa@galtzaundi.com helbidera

ERAKUSKETAK

ARANBURU JAUREGIA

» **Abuztuaren 31ra bitartean:** Pelex artistaren Hotsez Hots erakusketa.

» **Abuztuaren 31ra bitartean:** Karlos Iraturen eskultura eta egurgintza erakusketa.

GAU GIRO PROGRAMA

PLAZA BERRIA

» **Uztailak 17:** Tolosako musika bandaren kontzertua Lopez Mendizabal pasealekuan, 22:30ean hasita.

» **Uztailak 24:** Naive taldearen emanaldia Plaza Berrian, 22:30ean.

» **Abuztuak 7:** Zinea kalean Amarotz auzoan, 22:30ean.

» **Abuztuak 21:** Zinea kalean San Esteban auzoan, 22:30ean.

» **Abuztuak 22:** Lena Sinais taldearen zuzeneko Bide Bide jate txan, 22:30ean.

» **Abuztuak 28:** Desordutan taldearen emanaldia Plaza Berrian, 22:30ean.

A LEGIAKO KARMEN JAIK

» **Uztailak 17:** 8:30; Jubilatuek antolatutako MENDIMARTXA. 9:00; Herriko txistularien eta trikitilarien DIANA. 10:00- 14:00; HAUR PARKEA eskolako patioan. 13:00; Apar Festa eskolako patioan. 11:00; Jubilatuentzat HAMAIKETA KOA. Ondoren BERTSOLARIK plazan: Aitor Mendiluze eta Unai Agirre. 14:00; Umeen bazkaria 16:00; Umeen "Santos Torneoko" FUTBITOko finala. 17:00; HAURJAIALDIA esko-

lako patioan. Merienda eta jokuak. 19:00; Sagardo kupela plazan.

21:00; Afaria, HERRI AFARIA plazan (Txekor jatea edo menu begetarianoa) 00:00; AMA SAY eta DELOREAN taldeen kontzertua.



» **Uztailak 18:** 9:00; ARRANTZA LEHIAKETA Ori ibaian 6 eta 14 urte bitarteko lehiakideentzat. 9:00; Herriko txistulari eta trikitilarien DIANA. 9:30; GIROARTE dultzaina taldeak alaitutako diana. 12:00; Sagardo DASTAKETA sardina eta txorizo erreekin. 12:00; ASIER UNSAIN eta IRMA KARRERAREkin trikitixa plazan. 18:00; HERRI KIROLAK Larraitz auzoko plazan: Harrijasotzaileen IV. TXINTXARRI SARIA: Izeta II eta Izeta IV, Izeta III eta Ostolaza eta Aimar Irigoien, Bertiz Harriak: 125 kiloko kopa, 112,5 kiloko kubikoa, 100 kiloko zilindro-zarra eta

100 kiloko bolarekin. Ondoren, Euskadiko Lasto-altxatze Txapelketa. 21:00; ZAHAGIARDO BATERATUA. Ardoa gaztetxeak, postrea udalak eta ogia norberak. 00:30-5:00; DJ MAKALA.

» **Uztailak 19:** 09:00; GIROARTE dultzaina taldeak alaitutako diana. 09:30; KALEJIRA BEREZIA, lehengo eta oraingo herriko txistulariekin. 12:00; 20 + HATZ PROJECT taldearen kontzertua plazan. 19:45; "MARIACHI VIVA MEXICO" taldearen emanaldia plazan. 23:00-03:00; Dantzaldia DRINDOTS taldearekin. 00:00; TXINTXARRIAREN ERREKETA.

BERASTEGIKO SALONTZOAK

» **Abuztuak 7, ostirala**

12:00 Txupinazoa

12:30 Fronteniseko finalak

19:00 Herri kirolak: Urepelaren eskutik aizkora eta trontza probak eta Basurde elkarteak gizon proba VS eskainiko digu.

20:30 Perku poteoa

21:30 Herri afaria

Ondoren, lore txapelketako sarien bana-keta.

23:00 Musika taldea: Erdizka-lauetan

Abuztuak 8, larunbata, kuadrilen eguna

10:00 Goiz deia

11:00-13:00 Patata tortila txapelketa eta bitartean, Gorriti haurrentzat.

Ondoren, tortila dastaketa txakolinarekin.

14:00 Kuadrilen bazkaria

17:30 Kuadrilen arteko jokuak

Ondoren, sagardo dastaketa sardina errekin.

19:30 Toka txapelketa herrikoia eta txin-

Martin Eceizabarrena

Instalazio erreforma
Konponketak

Igaralde, 11 - Tolosa
Tel.: 943 672 445
Mobila: 608 774 822

SANTAMARIA

Ortopedia

- Garabi eta aulki elektrikoaren erakusketa.
- Kirola egiteko ortopedia sail berria.
- Osakidetzarekin hitzarmena.
- Ohe artikulatuak distantziarako mandoarekin.

Laskurain 11 • Tel.: 943 654 610 • TOLOSA

SHANTI

kirolak

Rondilla, 11 bis • Tel.: 943 674 074 • TOLOSA

txurrine txapelketa.

23:30 Musika taldea: Laket

Eguarditik arratsalderarte txaranga (Koskola).

Abuztuak 9, igandea

9:00 Goiz deia

12:00 Benjamin, alebin eta infantilen arteko pelota finalak.

Ondoren, Karreapeko pelota partiduak.

15:30 Plater tiraketa herrikoia

17:00 Berastegiko II.en gazteen trikiti-xa txapelketa

19:00 Bertsolariak: Aitzol Barandiaran, Ander Lizarralde, Unai Gaztelumendi, Iker Zubeldia, Uxue Alberdi eta Iñigo Gorostarzu.

22:30 Alurr-en dantza emanaldia.

00:00 Musika taldeak: Lain eta Ze esatek

Abuztuak 10, astelehena, Salontzo eguna

9:00 Goiz deia

9:30 Meza San Lorentzo ermitan

Montan-bike igoera herrikoia

11:30 Meza nagusia San Martin elizan (Perosiren obra kantatuekin)

12:00 Afizionatuen pelota partiduak

17:00 II. motozerra txapelketa

19:00 Dantza emanaldia: San Juan dantza, herriko neska-mutilen dantza eta dantza-soka.

23:30 Garraxi

Abuztuak 11, asteartea, umeen eguna

9:00 Goiz deia

10:00-13:00 Puzgarriak

17:00 Potxin eta Patxin

18:30 Haurren dantza emanaldia

20:00-21:30 Laiotz

00:00 Laiotz

Tolosaldean (IKASTN)

Bizitza osoan zeharreko ikaskuntza

Ikastaroak

Formakuntzan interesatua eta ez dakizu nora jo?

- Langileentzako formakuntza bila zabilta?
- Langabetuentzako formakuntza bila?
- Erdi nahiz goi mailako zikloen bila?
- Bestelako ikaskuntza motetan interesatua?

Tolosaldean Ikastn Bitartekotza Zerbitzuak lagundu zaitzake.

Zure intereseko formakuntza aurkitzeko dituzun aukerak hobetzen lagundu nahi dizugu; arreta pertsonalizatua, zuzena eta kalitatekoa eskainiz.

Norabide batean eskualdeko heziketa guztia: www.ikastn.com

Webgunean erregistratzearen abantailak: sms zerbitzua eta boletinen elektronikoa.

Orain errazagoa da prestatzea. Prestakuntzareko eta horrekin lotutako zerbitzuetarako leihatila bakarra duzu. Zatoz eta ezagutu gaitzazu!

Harremanetarako pertsona: Gemma Zelaia

Kokapena: Tolosaldea GMLH Institutua, Santa Luzia 17 - 20400 Tolosa

Telefonoa: 943.65.11.47 edo 615.775.678

Posta-e: info@ikastn.com

Webgunea: www.ikastn.com

Bizitza Osoan Zeharreko Ikaskuntza

<http://www.ikastn.com>

Guardiako farmaziak EKAINA

Ostirala, 17

Etxebeste Jesus M^o (Gemnikako arbola, 3) Tolosa

Larunbata, 18

Tolosa, M^o Isabel (Nagusia, 7) Tolosa

Igandea, 19

Olameaga M (Martin Jose Iraola) Tolosa

Astelehena, 20

Santamaria, (Naf. et. 2), Tolosa

Asteartea, 21

Iturrioz, I.(Euskal Herria, 46) Ibarra

Asteazkena, 22

Olameaga J. (korreo 2) Tolosa

Osteguna, 23

Morant. Rosalia. Zabalameta, 1, Tolosa

Ostirala, 24

Azpiroz L. (Amaroz, 9) Tolosa

Larunbata, 25

Morant. Rosalia. Zabalameta, 1, Tolosa

Igandea, 26

Etxebeste Jesus M^o (Gemnikako arbola, 3) Tolosa

Astelehena, 27

Tolosa, M^o Isabel (Nagusia, 7) Tolosa

Asteartea, 28

Olameaga M (Martin Jose Iraola) Tolosa

Asteazkena, 29

Ugarte, M^o Teresa (Euskal Herria, 46) Ibarra

Osteguna, 30

Santamaria, (Naf. et. 2), Tolosa

Ostirala, 31

Iturrioz, I.(Euskal Herria, 46) Ibarra

Telefono interesgarriak

Alegia-Amezketza-Albartzisketa-Albiztur
Osasun zentroa 943 653 212

Altzo

Medikua 943 654 737

Anoeta-Alkiza-Hernalde

Medikua 943 652 339

Baliarrain

Medikua 943 889 003 (asteazk.)

Berastegi-Elduain

Medikua 943 683 361

Bidegoian

Medikua 943 681 134

Ibarra-Belauntza-Berrobi-Gaztelu-Leaburu

Osasun etxea 943 672 411

Ikaztegieta

Medikua 943 653 329

Irura

Osasun zentroa 943 690 720

Tolosa

Anbulatorioa, larrialdiak 943 650 931

San Esteban, hitzordua 943 006 800

Gemnikako Arbola, hitzor 943 006 900

Amarozko dispensarioa 943 672 637

Asunzion klinika 943 675 799

(larrialdiak) 943 675 390

San Kosme San Damian

geriatrikoa 943 672 932

Udaltzaingoa 943 675 858

Ur eta Argia (Tolargi) 943 650 016

Ur zerbitzuak (aberiak) 639 352 156

lurreamendi egoitza 943 670 325

Larrialdiak, Suhiltzaileak 112

DYA 943 672 536

Gurutze Gorria 943 674 888

. 943 651 425

Ertzantza 943 673 022

Tolosa Gasa 943 675 320

Lizartza

Medikua 943 682 077

Orendain

Medikua 943 655 595

Orexa

Medikua 943 682 228

Vicente
Errotuloak

Mugikorra: 609 15 65 08
Laskibar bailara 25 ■ Tel. 943 690294
■ Irura ■ Faxa. 943 694291
rotulosvicente@jet.es

T X O K O L A T E G I A

uli

K A F E T E G I A

Meriendak, txurroak

Nafarroa, 1 • TOLOSA
Tel.: 943 651 830

Xirimiri
Txokolategia
Xabier Izaguirre

Gosariak eta meriendak

Tel.: 943 675 223
Errementari kalea, 40 • TOLOSA

Muxu-truk

Zure iragarkia muxu-truk atalean dohainik jartzeko aukera duzu. Deitu 943 655 004 telefonora

LANA

- **Adineko pertsonak** edo gaixoak zainduko nituzke. Esperientziaduna eta profesionaltasuna. Karlos, **680 983 527**
- **Hortz protesikoa** eskaintzen da laborategian edo auxiliari lanetan aritzeko. **671 44 66 15**

ETXEBIZITZA

- **Etxebizitza salgai** izaskun auzoan. 60 m². 2 logela, sala, sukaldea eta komunarekin. **645 718 536**
- **Tolosako kondeko aldapan pisua alokatzan da.** Oso argitsua, terraza bikaina eta bista paregabea. **695 731 982**

SALGAI

- **Kotxe bat salgai** BMW 330 D full equip 18.000 euro. **629 52 51 50.**
- **Kotxe bat salgai** (urte 1) 14.500 km. Opel Meriva Cosmo **667 232 015**
- **Spaniel txakur kumea salgai** 678923512
- **Bateria mapex saturno bat saltzen dut, platerak barne** 609 48 11 24
- **Espace bat** saltzen da egoera oso onean, 2001 urtekoa. 9.000 euro. Telf. **605 717 858**
- **Pottoka kalifikatuak salgai** (kumeak egitekoak) **Txakurkumeak** salgai (pintxer arrazakoak). **645 703 634**
- **Haur jaio berri batentzat behar diren gauza gehienak salgai** (aulkiak, hamaika, seaska, ...). **653 733 675**

HOROSKOPOA

UZTAILAREN 17TIK IRAILAREN 1ERA BITARTEKO AURREIKUSPENA



ARIES

Martxoak 21 – Apirilak 21

Une txarrak igarotzen ari zara, arazok besterik ez dituzu azkenaldian. Baina kontutan izan kuota garrantzitsu bat ordaintzen ari zarela. Hainbat gauzei bizitza osorako konponbidea emango diezu.



TAURUS

Apirilak 22 – Maiatzak 21

Buelta gehiegi ematen dizkiozu buruari. Ondo dago gauzak birritan pentsatzea baina hirugarrenez pentsatzen duzunerako beranduegi izaten da. Hori gertatuko zaizu erabakia berehala hartzen ez baduzu.



GEMINI

Maiatzak 22 – Ekainak 21

Kurtsua amaitu da, une egokia da irailetik aurrera zer egingo duzun pentsatzeko. Aholku bat, eman izena ekintza ezberdinetan. Haizebermitzeko beharra daukazu.



CANCER

Ekainak 22 – Uztailak 22

Ilargiak positiboki eragingo dio hilabete guzti honetan zure izarriari. Horregatik zoazen lekura zoazela diz-diz egingo duzu, batez ere gauean. Zorionak!



LEO

Uztailak 23 – Abuztuak 22

Buruarekin pentsatu eta hotz jokatzeko horietakoa zara. Utzizu behingoz balazta zapaltzeari eta utzi zaitzez eramaten. Ondo pasatzea merezi duzu.



VIRGO

Abuztuak 23 – Irailak 22

Azal beltzarana izatea baino hobea da larrazala egoera onean mantentzea. Kremarekin xur zabilta eta gogotik ordainduko duzu horrela jarraituz gero.



LIBRA

Irailak 23 – Urriak 22

Azken unerako uzten dituzu gauzak eta gero ezin iritsi ibiltzen zara. Hala ere ez duzu lezioa ikasten. Joera hori aldatu egin beharko zenuke, bestela hala-beharrez eskarmentatuko zara!



SCORPIUS

Urriak 23 – Azaroak 22

Magia berezi bat izango duzu hurrengo egunetan zure ingurukoak konbentitzeko. Atera iezaiozu probetxu horri, baina kontuz, ez pasa! bestela handik edo hemendik etorriko zaizu ordaina.



SAGITTARIUS

Azaroak 23 – Abenduak 21

Zorteko zaude. Hala diote zure izarrek. Erosi loteria, edo parte hartu toureko porra-aren batean. Dirutzairabazteko aukera asko dituzu.



CAPRICORNUS

Abenduak 21 – Urtarrilak 20

Esaten diren hitzak baino mingarriagoak dira isilean gordetzen direnak. Eskaiozu dena kontatzeko, hobeto sentituko zara egia jakinda, baita bera ere.



AQUARIUS

Urtarrilak 21 – Otsailak 20

Jaia eta parranda besterik ez duzu egiten azkenaldian. Hartu neurria edanari, jada ez zara mutiko bat horrela ibiltzeko. Auzoko mihi gaiztoen bazka bilakatu nahi al duzu?



PISCIS

Otsailak 21 – Martxoak 20

Udara bikaina duzu aurretik, aspaldiko urteetako onena. Aberasgarri egingo zaizkizun esperientzia berriak bizi eta une paregabeak igaroko dituzu. Saiatu zaitzez ehuneko ehunean gozatzen.



Komikaria: Joseba Antxustegietxarte

Udarako zozketa

Edertasun zerbitzu sorta eder bat lortu nahi duzu?

Pasa zaitetz gure zentrutik eta zure zenbakia lortuko duzu.

Zorte on!

Tfnoa. 943 67 03 38 | Leiza kalea z/g TOLOSA

Maite
ESTETIKA ETA KOSMETIKA ZENTROA
ondo doakizu.



aldama_tapia
aholkularitza

Foruen Etorbidea 7
20400_TOLOSA Gipuzkoa
Tel_943 650 375
Faxa_943 655 206
gtolosa@aldamatapia.com
www.aldamatapia.com

2000€ PLANA-REN
UNEA HELDU DA



CITROËN C4
HDi desde **11.600€***

CITROËN preferire TOTAL



CITROËN C3 HDi
8.600€*-TIK



GAMA C1
6.100€*-TIK



CITROËN XSARA PICASSO
HDi **12.600€*-TIK**

CITROËN C4 SEDÁN
HDi **15.500€*-TIK**

KONFIDANTZA PLANA

LANGABEZI
KOBERTURA OPARI (1)

ETA GAINERA. **0%-KO ZERGA:**

C1 | C2HDi | C3HDi | C4HDi 90/110 FAP/110 CMP FAP

Consumo mixto (L/100 Km) / Emisión CO: (g/km): C1: 4,1-4,6/106-109 C3: 4,4-6,1/115-145 C4: 4,4-6,9/115-175 C4 Sedán: 5,2-7,6/136-179 Xsara Picasso: 5,0-7,3/130-172

Gomendatutako salneurria (BEZa, matrikulazio zerga, garraioa, eskaintza, 2000€ bame). 2000€ Plan-ari abikrituta dagoen edozein autonomi erdidegoko bezero partikularrei zuzenduta. Eskaintza metalezinak. Hilabete bukaera bitarte balagariak, operazioan parte hartzen duten saltokietan, stock-ean dauden autoentzat. CO: jaukipena 149 g/km gaindizen ez duten autoentzat, 10 urte baino gehiagoko aintzintasuna duen auto bat entregatuz gero. *C3 HDi 70 Airdream Funio, C4 HDi 90 Airdream LX Coupé, C4 Sedán HDi 110 FAP Airdream Collection, Xsara Picasso HDi 90 Airdream LX Plus. **Gasolina: C1 1,0/12v Airdream X3p. Irudietako argazkiak: C3 Exklusivo, C4 Exklusivo, Xsara Picasso Exklusivo, C4 Sedán Exklusivo. (1)Konfiantza Plana, Langabezi Kobertura oparituko da auto berri bat finantziatuz gero, kreditu aseguruare bame duelarik. Cardif Assurance Vie aseguru etbea-rekin kontratatutako aseguru, Espainian sukursala, W0012421IFK-rekin Eregistrotan izena emanda.



CITROËN

CRÉATIVE TECHNOLOGIE

R.P.S. Nº 19004 LLG.

MULTIOPTICAS

1.A ZERBITZU OPTIKOETAN



disainuzko mila eta bat betaurreko prezio berean

kristalak barne

77

euro

Eskaintza hau indarrean egongo da 09/12/31ra arte. Egin datoket beste eskaintza edo promozio batzuekiri jaitzu.

J. Carlos Guerra 1 Tel. 943 79 29 95 ARRASATE	Ibargarai 16 Tel. 943 76 15 75 BERGARA	C/ Nueva 15 - GROS Tel. 943 32 66 49 DONOSTIA	Bidebarrieta 2 Tel. 943 20 05 22 EIBAR	Koldo Mitxelena, 7 Tel. 943 51 78 11 ERRETERIA	Mendibil M. G. Tel. 943 63 99 01 IRUN	J.M. Barandiaran Enp. Tel. 943 88 99 88 ORDIZIA	San Frantzisko 23 Tel. 943 69 84 70 TOLOSA
--	---	--	---	---	--	--	---



A P A I N D E G I A

Zure lehen zerbitzuarengatik eskatu zure BEHERAPEN txartela!

Korreo kalea 60 - 20400 Tolosa - 943 116 456

goITIK

Internet eta aurreinprimaketa zerbitzuak

korreo kalea, 45 beheka - 20400 Tolosa
Telf. 943 67 08 19
goitik@goitik.com - www.goitik.com



berogas

langile elkarte, s.a.l.

Berokuntza, gasa, aire girotua, iturgintza.
Instalazio industrialak eta etxeak, eguzki-energia.
Sukaldeko eta bainuko altzariak, etxetresna elektrikoak.
Aluminiozko eta Poliuretanozko leihoak .

Denda: Pº San Francisco, 10 – 20400 Tolosa
Tel.: 943 653 307
Tel. / Fax: 943 650 520
E-mail: muebles@berogas.com

Bulegoak: Polg. Usabal, pab. 11A – 20400 Tolosa
Tels.: 943 672 620 / 943 675 977
Fax: 943 675 421
E-mail: berogas@berogas.com

www.berogas.com

